



Hasi dira sansaastinak!

Igandera arte iraunen dute Lakuntzako neguko festek; Olaztin San Sebastian eguna ospatuko dute gaur / 11

LAKUNTZAKO ESKOLA

2027ra arteko bide orria egina

Sakanako Estrategia Plana ondu dute hainbat eragilek elkarlanean bigarren aldiz / 2-5

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko prestakuntza saioak antolatu dituzte / 7

Erkuden Moreno taekwondistarendako dominak baino progresioa da garrantzitsuagoa / 16-17

Izaskun Beunzak Espainiako Kros Txapelketan Nafarroa ordezkatzeko txartela lortu du / 18

Joxe Aldasoro Jauregi etxarriarrak Egile berrientzako narrazio saria irabazi du / 21

Sakanak 94 biztanle gehiago ditu; 11 udalerritan kopuruak gora egin du, 4tan behera / 12-13

Xabier Irujo Ametzaga historialariak hitzaldia emanen du gaur Altsasun / 22



Iker Manterola Matxain, Sakanako Garapen Agentziako kudeatzailea. ARTXIBOA

"Aurrera begira konfiantzazko oinarriak ezarri dira"

IKER MANTEROLA MATXAIN SAKANAKO GARAPEN AGENTZIAKO KUDEATZAILEA Sakanako Estrategia Planak ibarrak sozioekonomia arloan jarritako helburuetara iristeko bide orri edo mapa berria du: 2021-2027 Sakanako Estrategia Plana

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Ibarreko aurreneko estrategia plana 2013 eta 2020 aldirako izan zen. Hura bukatuta, aztertu eta eguneratzeko lanketa egin ondoren Sakanako Sozioekonomia Behatokiak bigarrena azaroaren 24an onartu zuen.

Noiz hasi zenuten aurreko planaren berrazterketa eta berria egiteko prozesua?

Berez, 2020an egin behar zen berrazterketa, baina pandemia etorri zenez 2021. urtean abiatu genuen. Garbi genuen prozesuak eskatzen zuen denboraz eta patxadaz lan egin behar zela. 2021ean hasi eta 2022ko azaroaren 24an onartu zen. Bi urtetako lanketa izan da, beharrezko denbora hartzeari garrantzia emanez.

Pandemiak lanean utzi dizue?

Lehenengo momentuaren ondoren denok horretara ohitzen joan gara. Horrek ere eman digu gauzak beste modu batera ikusteko bidea. Bigarren estrategia plana hainbat arlotan indar gehiagoekin aurrera ateratzeko eragina izan du.

Zeinek parte hartu du?

Aurrekoari jarraituz antolatuta zen. Beti ere *Sakanan bizi eta lan* leloari erantzungo liokeena; lan mundutik erantzungo liokeen estrategia bat da. Sektoreak kontuan hartuta hainbat lantalde sortu dira. Haietan udalek eta Sakanako Mankomunitateak parte hartu dute, baita enpresa arloko elkarteek, sindikatuek, norbanakoek eta lan munduko bestelako eragileek. Egia esan prozesua oso irekia da. Eta hemendik aurrera hala izateko asmoa dugu, eta beste eragile batzuen parte hartzera ere irekia izanen da.

Berria egin aurretik, lehenengo Estrategia planaren balorazioa edo egoeraren diagnostia egin duzue? Zein izan da emaitza?

Aurreko planaren balorazioa positiboa izan zen, baina bere argi-ilunekin eta hobetzeko kon-tuekin. Bere ezarpenean parte hartu zuten eragile guztiek airtortzen zuten egindako lana. Ikusten zen komunikazioan hobetu beharra eta eragile gehi-go proiektura barneratu beharra.

"BIDE ORRIA ADOSTUTA, FINANTZABIDEAK ETA BESTE LORTZEA DA HELBURUA"

Alde horretatik, bigarren planean aurrerapausoak eman dira. Horren adibidea da, aurreneko planean ez bezala, oraingo honetan Jarraipen Batzordean eta prozesu beraren zuzendaritzan hasieratik egon direla Cederna-Garalur eta Sakanako Enpresen Elkarteak. Azken horretan zuzendaritza berria dago eta hor aldaketa handi samarra ikusi dugu, jendearen inplikazioan, parte hartzean... Aurrekoaren aldean beste indar batzuekin abiatzen garelako dirudi. Aurreko planak hainbat lorpen izan ditu. Esaterako, Dinabide, Nafarroan erreferentzia dena. Lortutakoez aparte, aurrera begira konfiantzazko oinarriak ezarri dira. Horri Sakanako Garapen Agentzian balioa ematen diogu.

Zer inpresio utzi dizue prozesuak?

Aurrekoarekin alderatuta, parte hartze eta inplikazio handiagoko eta lanerako beste gogo bat, beste baldintza batzuk ematen dira. Planak ez du atzetik aurrekontu jakin bat, esaterako, Nafarroako Gobernuak plangintza bat egiteko hainbat diru bideratzen duenean bezala. Gure kasuan da denon artean bide orri bat adostea eta, ondoren, finantzabideak eta bestelakoak lortzea dugu helburu. Hortik abiatuta, oso garrantzitsua da inplikazioa eta proposizio jarrera. Prozesuaren oso-oso balorazio ona egin dugu.

Aurrekoarekin alderatuta, bakoitzari dagokion arduraren mailan, eragileek plan hau haiena balitz bezala hartu dute. Norberak bere tokitik defendatu dezakeen proiektua da. Aipatu nahi nuke Cederna-Garalurrek emandako bultzada, merkataritza arloan izandako inplikazioa nabarmentzekoa da. Sakanako Enpresen Elkarteak borondate eta jarrera ona izan du prozesu guztian. Planari bultzada emateko parte garrantzitsua izan dira.

Aurreko planean lortu den emaitza esanguratsua izan da hainbat eragileren arteko elkar-lana. Helburuak lortzeko bidean elkarlanaren garrantzia agerian gelditu da. Lantaldeetan aipatu da: nora joan badakigu, noraino iritsiko garen? Hori hemen gaudenon elkarlanaren gaitasunaren araberakoa izanen da.

Pandemia, Ukrainako gerra, inflazioa... Diagnostia egiterakoan zer izan duzue kontuan?

Diagnosi nahiko zabala egin da. Azterketa ekonomikoa egin da, baina baita gizarte arlotik ere.



Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren bileran onartu zen ibarrerako bigarren estrategia plana. UTZITAKOIA

Eta horretan arlo ekonomikoari eragiten dioten hainbat gai atera dira, esaterako, etxebizitza, mugikortasuna eta lanari oso lotuta dauden beste hainbat behar plazaratu dira. Ekonomia jarduera ez da gizartetik isolatuta dagoen zerbait, haren baitan txertatuta dago. Azaleratu den gaitako bat da langile edo errelebo faltarena. Heldu diren bost urtetan mila pertsona inguru jubilatu dira eta Sakanan bizi den gazte kopuruarekin ez da jarraipena ziurtatzen. Horri lotuta etxebizitza premia eta beste hainbat gai mahaigaineratu dira. Plana ikusi nahi duenak www.sakanagaratzen.com webgunean du (<https://labur.eus/iBTOL>).

Zein ikuspegirekin egin duzue plan berria?

2027. urtera begira, Sakanako eskualdea lurralde erakargarria eta interesgarria izatea nahi dugu, bere zerbitzu eskaintzari eta bere ekosistema sozial eta ekonomikoari esker. Nahi dugu Sakanan pertsonen euren bizi proiektuak erabat garatu ahal izatea, maila pertsonalean zehar profesionalen. Eta Sakanak hazkunde iraunkorra eta orekatua izatea sektore ekonomiko guztietan. *Sakanan bizi eta lan* leloari sostengua emanen diona. Plana ibarreko ekonomia suspertze estrategia

bat da eta heldu diren erronkei begira elkarlan esparruak zehaztea. Alde horretatik, hainbat eragileen artean partekatua da. Norabidea finkatua dago, baina garrantzitsua da unean unean egoerak irakurri eta horietara egokitze mekanismoak izatea, malgua izatea. Horregatik, urtero egoera beraztertu eta egokitze beharrezko moldaketak eginen ditugu. Pandemiak hori erakutsi digu: egoera berrietara ahalik eta modu azkarrenean moldatzeko beharra.

Hori guztia lortzeko zer pauso emanen dituzue?

Estrategia planean sei esparru daude eta horiei zeharkako estrategia elementuak, edo zeharlerroak gehitu dizkiegu. Lau dira. Batetik, jasagarritasuna, eraldaketa ekonomikoaren gako nagusia, Sakanako gaitasun teknologiko eta industrialak ingurumenarekiko eta pertsonen irtenbide arduratsua bilatzera bideratuz. Bestetik, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna. Horrekin batera, digitalizazioa, eraldaketa-prozesua, datuaren ekonomian, prozesuen automatizazioa eta fabrikazio aurreratuko teknologietan oinarritutako soluzio digitalak garatzea eta ezartzea dakarrena. Eta, azkenik, gizar-

te ekonomia, arlo pribatua interes ekonomiko edo sozial orokorra bilatzen duten erakundeek edo biek egiten dituzten jardura ekonomiko eta enpresarialen multzoa. Beraz, sei arlo horietan egiten diren eta proposatzen diren ekimen guztiei lau zeharlerroen begirada txertatu zaie.

Zein dira aipatu dituzun sei arloak?

Aurreko planari jarraituz, honakoak dira: industria, energia, merkataritza, turismoa, elikadura eta toki erakundeak. Azken hori da berrikuntza, tokiko erakundearen parte hartzea eta haien inguruko proiektuak. Hor sartzen dira aipatu ditugun etxebizitzaren eta zahartze aktiboaren inguruko politikak. Eta aipatu den malgututasuna kontuan izanik, etor litezkeen eskari eta beharrei erantzuteko moduak.

Hori guztia kudeatu beharra dago. Nola egingen duzue?

Sakanako Sozioekonomia Behatokia izanen da organo nagusia. Bertan Sakanako Estrategia Planeko sei arloak eta lau zeharlerroak, ikuspegi osoa, kontuan hartuko duen foroa izanen da. Behatokia, orain arte bezala, urtean gutxienez bitan elkartuko da. Urteko ekintzak onartuko ditu, eta haien balorazioa egin ere. Beti ere, ikuspegi makro horretatik. Bestetik, Talde Era-

gilea dago. Hura Cederna-Garalurrek, Sakanako Enpresen Elkartek eta Sakanako Garapen Agentziak osatzen dute. Haren lana da planaren ezarpenaren eguneroko jarraipena egitea eta erabakiak hartzea. Azkenik, orain arte ez bezala, lantaldeak zehaztuta daude, arlo bakoitzeko lantaldeak daude. Bakoitzean teknikaria izanen da arduraduna. Lantaldeek urtean zehar zer gai landuko diren zehaztasunez landuko dituzte, urteko ekintzak proposatuko dituzte eta haien ondorengo balorazioak egin ere. Lantaldeen bileren maiztasunak beste dinamismo bat izanen du. Gure helburua da sakandarrei eta eragileei parte hartzeko bideak irekitzea.

"MILA INGURU JUBILATUKO DIRA, DAUDEN GAZTEKIN JARRAIPENA EZ DA ZIURTATZEN"

"PLANA HELDU DIREN ERRONKEI BEGIRA ELKARLAN ESPARRUAK ZEHAZTEA DA"

Horiek osatuta, zein dira hurrengo pausoak?

Talde Eragilea osatzen dugun hiru erakundeok elkarlan akordioa sinatuko dugu. Haren bidez lan banaketa eta gure arteko funtzionamendua zehaztuko da. Bestetik, Nafarroako eragileei Sakanako Estrategia Planaren berri emanen diegu, planeko helburuak lortzeko haietako asko guretzako garrantzitsuak izanen direlako.







Lantalde bakoitzak aurtengo plana edo egitasmoak zehaztuak dituzue?

Bilerak abenduan hasi ziren. Lantalde erdiek lehen bilerak eginak dituzte, eta lehen proposamenak ontzen ari gara. Horiek ondu, lantaldeen azken oniritzia jaso eta Talde Eragilera eta Sozioekonomia Behatokira aurkeztea falta da. Gure asmoa litzateke Behatokiaren deialdia otsailan egitea, bertan mahaigaineratzeko urteko ekintzen proposamenak.

Horiek nola finantzatu dira?

Hau guztia aurrera eramateko dugun erronka da finantzazioa bilatzea. Orain arte plana aurrera ateratzeko Sakanako Mankomunitatearena izan da ekarpen nagusienetako bat. Eta urtez urte Nafarroako Gobernuak atera dituen eskualde aktibazio planeko deialdiak. Orain hainbat ildo lantzen ari gara planean jaso ditugun ekintzak finantzatzeko. Plana bide orri bat da. Gure lana da ekintza horiek aurrera egiteko finantzabideak aurkitu, identifikatu eta lantzea. 2023ra begira, Mank-en eta gobernuaren ekarpenez aparte, esaterako, bizikleta ibilbidea egiteko estatuko 1,7 milioi euroko dirulaguntza izanen dugu. Beste arloetan ere hala litzateke, proiektuen bitartez, deialdiertara aurkeztu eta finantzazioa lortu horiek aurrera ateratzeko. **Bakarren batek ekarpena egin nahiko balu, zer egin beharko luke?**

www.sakanagaratzen.com webgunean Sakanako Estrategia Planaren dokumentazio guztiaz aparte, galdetegi bat dago. Proposamenak eta ekarpenak egiteko aukera izanen da. Gainera, urtez urte ekintzen proposamenak plazaratuko ditugu, eta horiei ekarpena egiteko aukera izanen da. Beti ere, Sakanako Garapen Agentziaren webgunearen bitartez. Sakandarrak haiek irakurtzera eta ekarpenak egitera animatzen ditut.

 <p>INDUSTRIA</p>	<p>"Kualifikazioa duten langileen falta nabaria da. Orain arte oso maskulinizataua izan da eta apustu garrantzitsua izanen da emakumezkoak industrian aritzea erraztuko duten politikak aurrera eramatea. Sakanako Enpresen Elkarrekin konpromiso argia adierazi du horrekin. Bestetik, berrikuntza eta garapenerako enpresen arteko elkarlanetik bideratu nahi da. Horrekin batera, enpresek lurraldearekiko eta gizartearekiko erantzukizuna bideratzeko ekintzak egitea."</p>	<p>PERTSONAK</p> <p>Industria jarduerarako prestakuntza duten pertsonen kopuru nahikoa izatea.</p>	<p>ENPRESA SAREA: ENPRESAK</p> <p>Enpresa kopurua egonkortzea.</p>
 <p>ENERGIA</p>	<p>"Energia berriztagarrien garapena, gizartearen sentsibilizazioan sakontzea, etxebizitzaren energia eraginkortasuna sustatzea eta hondakinen murrizketa aipatzen dira. Proposatzen den ekintza nagusietakoak, lehenbailehen martxan jarri nahi duguna, energia komunitateen sustapena da. Energia berriztagarrien garapena hortik ikusten dugu nagusiki."</p>	<p>ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GARAPENA</p> <p>Eredu energetiko berri bat bultzatzea: energia berriztagarrien ezarpena.</p>	<p>GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA</p> <p>Gizartea energiaren erabilera aduratsuz sentsibilizatzea.</p>
 <p>MERKATARITZA</p>	<p>"Merkataritza bizitzaren ari den aldaketa horiekin guztiekin, oinarrizko erosketak herrian egiteko aukera izatea da helburu nagusietako bat. Merkataritza gune nagusiak indartzea, eskualde mailako eta aisialdia ikuspegiak duten arloarekin lotuta. Hori egin ahal izateko merkataritza espazio fisikoen sustapena eginen da. Eta elkartegintza bulkatuko da."</p>	<p>ONINARRIZKO EROSKETA</p> <p>Udalerrri guztietan oinarrizko produktuak banatzeko merkataritza jarduerak sustatzea eta mantentzea.</p>	<p>MERKATARITZA JARDUERA</p> <p>Merkataritza jarduerak antolatzea eta dinamizatzea, merkataritza jardueren kopuruari eusteko.</p>
 <p>TURISMOA</p>	<p>"Sakanako ondareari balioa aitortzea. Eta, beti ere, turismo iraunkorra sustatuz. Aurreko planetik hainbat ekimen heldu dira, esanguratsuenak, bizikleta ibilbideari lotutako turismo produktuak dira: Donejakue bidea eta zikloturismoari dagozkion produktuak. Espezializazio horretan zentratuz, turismo iraunkorra, kirol turismoa eta mendi baliabideei lotutakoak. Trakzio lana eginen zuen produktu baten beharra ikusten zen orain arte. Bizikleta ibilbideko lanak aurrean hastea espero dugu."</p>	<p>TURISMO GOBERNANTZA</p> <p>Turismo kudeaketan sakontzea, eragile eta lurraldeekiko gobernanzatik.</p>	<p>SAKANAKO ONDAREA</p> <p>Sakanako ondareari balioa ematea, eskaintza integral bat prestatuz: produktu eta zerbitzu turistikoak definitzea eta merkaturatzea.</p>
 <p>ELIKADURA</p>	<p>"Aurreko planaren jarraipena izanen litzateke: bioeskualde agroekologikoaren ikuspegiak landu nahi da. Batetik, lurraldearen erabilera jasangarria sustatu nahi da, komunalek duten garrantziari helduz. Aldi berean, sektorearen garrantzia herritarrei iritsaraztea eta, horrekin batera tokiko produktuen kontsumoa sustatu. Bestetik, elkarlan esparruak. Horien artean garapen fase aurreratuan dagoen Kalaska proiektua, haragi eraldaketarako kooperatiba publiko komunitarioa."</p>	<p>LURRALDEAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA</p> <p>Lurraldearen erabilera eta kudeaketan ikuspegi jasangarriaren ezarpena. Lurraldearen eta paisaiaren kudeaketa iraunkorra, elikadura sistema lurraldetua lortzeko.</p>	<p>SEKTOREAREN GARRANTZIA</p> <p>Gizartearen aurrean lehen sektorearen garrantzia azpimarratu.</p>
 <p>TOKI ERAKUNDEAK</p>	<p>"Eskualde ikuspegi eta jarduerak indartzea nahi da. Elkarrekin atera daitezkeen hainbat ekimen banaka ateratzeko zailtasun handiak daude. Eraginkortasunagatik eta eskualde nortasuna indartzeko. Ibar gisa heldu beharreko gizarte beharrak ere. Honakoak dira identifikatu diren premia nagusiak: etxebizitza, adinduendako bizitoki eskaintzaren beharrak eta garraio publikoa eta mugikortasuna. Azkenik, ekonomia sustapenari dagozkionak, esaterako, industria poligonoen egokitzea."</p>	<p>ESKUALDEKO IKUSPEGIA ETA JARDUERA</p> <p>Eskualde ikuspegi indartzea zerbitzu publikoak ematean.</p>	<p>ESKUALDEKO IKUSPEGIA ETA JARDUERA</p> <p>Eskualde ikuspegi indartzea Sakana marka komunikatu eta sendotuz.</p>

**BERRIKUNTZA ETA
GARAPENA**

Sakana berrikuntzan erreferente den lurralde gisa prestatu eta irudikatzea.

**GIZARTEAREKIKO
ERANTZUKIZUNA**

Sakanako gizartearekin arduratsua den sare industriala.

**LURRALDEAREKIKO
ERANTZUKIZUNA**

Sakanako lurraldearekin arduratsua den sare industriala.

**ETXEBIZITZETAN
HOBEKUNTZAK**

Etxebizitzaren energia baldintzak hobetzea.

HONDAKINAK MURRIZTEA

Hondakinen birziklapena eta berrerabilpena sustatzea.

ERAGIN SOZIALA

Gizartearen, haren balioen, kulturaren... eta merkataritza jardueraren arteko harremana bultzatzea eta bistaratzea.

**ESPAZIO FISIKO
KOMERTZIALA**

Merkataritza jarduera erraztu eta bultzatuko duen espazio publikoa sortzea

ASOZIAZIONISMOA

Sektorea ordezkatu eta bultzatuko duen eskualdeko merkatarien elkarte bat mantentzea eta sendotzea.

TURISMO IRAUNKORRA

Bere jardueran esku hartzen duten elementu guztiak bilduko dituen Turismo Iraunkorraren eskaintza integrala garatzea.

KIROL TURISMOA

Mankomunitatearekin lankidetzan, kirol turismoko eskaintza bat garatzea.

**ARALAR MENDILERROA+
ARALARKO SAN MIGEL +
ZAMARTZE**

Aralarko San Migel Santutegiaren jarduera Sakanako eskaintza turistikoan integratzea.

**MARKETINA ETA
MERKATURATZEA**

Informazio, komunikazio eta merkaturatze kanal guztiak hobetzea.

BERRIKUNTZA

Lehen sektorean berrikuntza bultzatzea: ekoizpena, distribuzioa.

LEHIAKORTASUNA

Lehen sektorea bidezkoak eta orekatuak diren errentak sortzen dituen jarduera lehiakor gisa eratzea.

**LURRALDEAREKIKO
ERANTZUKIZUNA**

Sakanako lurraldearekin arduratsua den sare industriala.

GIZARTE BEHARRAK

Gizarte beharrei erantzuteko baliabideen eskaintza egokia.

Gizarte beharrei erantzutea ingurumenaren ikuspuntutik.

**SUSTAPEN
EKONOMIKOA**

Sakanan jarduera ekonomikoa garatzeko baldintza egokiak sortzea.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Crowdfunding

Berriki crowdfunding kanpaina batean murgilduta eta bultzatzaile aurkitu naiz.

Baina zer da crowdfundinga? Hasteko anglizismoa, baina azken finean, dirua biltzeko kanpaina. Kasu honetan, Josefina Arregui Klinikaren Eguneko Zentroa handitzeko eta berritzeko diruz laguntzeko Sakanako jendeari egiten zaion eskaera. Diru biltzeko bat.

Eta zergatik crowdfundinga eta ez, zuzenean, diru biltzeko? Azkenaldi honetan anglizismoak erabiltzeko joera gero eta handiagoa delako, mundu globalizatu honetan.

Ez naiz gauza esateko noiz hasiko zen joera hau, baina, agian lehenengo hitzetako bat "footing" izanen zen, edo, akaso, football edo stop. Eta ondoren, bata bestearen atzetik, gainontzeko guztiak etorri ziren. Footing, running, shopping, teleworking... Eta gero BEC edo BCC... Gaur egun ia ez dago lelorik edo kanpaina berririk anglizismo bat tartekatzen ez duenik.

Kontua da hitz horien guztien baliokideak hizkuntza guztietan daudela, baina ematen du ingelesez adierazita garrantzitsuagoak direla edo izenak izanak baino balio handiagoa duela. Nik uste, teknologia arloan erabiltzen diren anglizismoak erabiltzea onargarria izan litekeela, azken finean, ingelesez sortzen baitira, hein handi batean, baina beste gauza guztiak adierazteko ez direla beharrezkoak eta hori egiteak gure hizkuntza pobretu egiten duela.

Hasierara itzulita, kanpainaren erdialdera iritsita, hobe crowdfundinga alde batera uzten badugu eta Josefina Arregui klinikaren Eguneko Zentroaren aldeko diru biltzarekin jarraitzen badugu, aurreikusitako helburuak ia lortzen diren, sakandar guztion mesederako da eta.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

2.000 milioi euro

SAKANA TRENAREN ALDE

Krisi larri batean murgildurik gaude. Eta ez, arrazoia ez da Ukrainako gerra, ez da koronabirusaren ondorioa, ez da Egiptoko Suez Ubidean eman zen buxadura eta ez da ere kapitalismoak ziklikoki dituen krisi horietako bat. Krisi hau energetikoa da oro har, eta zehazkiago, ezinbesteko lehengaien agorpenarena.

Erregai fosilek eta bereziki petrolioak izugarriko energia indarra eman digute kostu oso-oso merkean, gizateriak inoiz ezagutu ez duen tamainakoa. Horregatik azken 200 urte hauetan inoizko hazkunde ekonomikorik handiena izan dugu, eta biztanleena, eta lurraldearen eraldaketarena, eta energiaren kontsumoarena. Eta bukatu da. Petrolioak ez du gehiagorako ematen. Petrolio

multinazionalak putzu berriak topatzeko inbertsioak erabat murriztu dituzte azken urteetan eta beraien negozioa ekonomiaren beste adar batzuetara bideratzen ari dira. Zergatik ote?

Krisia, beraz, gelditzeko etorri da eta gure agintari politikoei egiturazko aldaketak egin beharrean azalekoak eta itxurakoak egiten ari dira, nola ez.

Euskal Herrian adibide nabarmenena AHT da. 30 urteko esperientziak erakusten du ez duela ekonomia suspertzen, ez dituela kamionak bideberrituz kentzen, eskualdeak basamortutzen dituela, betiko trenbidea utzikerian eta zerbitzuen galerara kondentatzen duela... eta hala eta guztiz ere, Geroa Baik, PSNk, CCOOK, UGTk eta ustez aurrerakoak eta ezkertiarak

diren beste hainbat antolakundek honen alde darraite temati.

Trenaren aldeko Plataformek Nafarroarako, Arabarako eta Burgoserako aurkeztu dugun proiektuan betiko trenbidearen gaurkotze eta egokitzeak AHT plataformak berri batek kostatuko lukeena baino 2.000 milioi euro gutxiago kostatuko lukekeela erakutsi dugu. Trenbide gaurkotu honetan ibil daiteke aldirikoa, eskualdekoa, distantzia ertain eta luzekoa, merkantziatokia eta goi abiadurako trenak. Hortaz, pasatzen den herrietatik zerbitzua mantenduz, geltokiak eta geratokiak indartuko genituzke jende eta salgaiendako garraio iraunkorrago bat sendotuz krisialdi klimatikoari hobeki aurre egiteko.



OBJEKTIBOTIK

Egin apostu!

Urdiainen 10 urtetan euskararen erabilera %22,2 jaitsi da, eta herrian jarri duten kartel batean galdera bat luzatu digute, hemendik beste 10 urtera zein izanen den Urdiainen euskararen erabilera kopurua. Lagun artean, eta Whatsapp taldeetan apostua egitera animatzen gaituzte. Hemendik hamarkada batera ikusiko dugu zeinek irabazi duen apostua.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
 948 564 275 (3 luzapena)
 619 821 436
 Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
 618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
 eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
 31800 Altsasu
 948 564 275
 618 882 675



Gobierno de Navarra
 Nafarroako Gobernua



Protokoloa bere egin duten erakundeetako ordezkariak Arruazun egindako aurkezpenean. ARTXIBOA

Esku morearen babesa zabaltzeko lanean

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera koordinatzeko Sakanako I. Lurralde Protokoloaren baitan erakundeen bilerak eta profesionali eta sakandarrei zuzendutako prestakuntza saioak antolatu dituzte Berdintasun Zerbitzuek

SAKANA

Hainbat erakunderen elkarlanaren ondorioz, Sakanak *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera koordinatzeko protokoloa* du 2021eko otsailaren 23az geroztik. Agiriak Sakanako Mankomunitatearen, ibarreko udal guztien, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren, Osasunbidearen, Sakanako oi-

narrizko gizarte zerbitzuetako hiru mankomunitateetako eta ibarreko hiru osasun eskualdeetako ordezkarien sinadura du. Protokoloak bere baitan planifikazio, jarraipen eta ebaluazio sistema jasoa du. Baita urtero jarduera plangintza zehazteko eta egiteko beharra ere. Azken hori Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Ber-

dintasun Zerbitzuek elkarlanean egingen dute.

Aurten, dagoeneko, ekin diote egiteko horiei. Hasteko, protokoloa koordinatzeko eta kudeatzeko sortutako bi egituren bilerak egin ziren asteazkenean, alde batetik, Eskualdeko Koordinazio Mahaia, edo gune tekniko, eta, bestetik, Emakumeen Kontrako Indarkeriarako Lurralde Batzor-

dea, hautetsiak biltzen dituen. Bilera batean eta bestean egingakoaren berri eman eta aurtengo plangintzaren berri eman, eta iritziak trukatu zituzten.

Prestakuntza

Emakumezkoen indarkeriari aurre egiteko prestakuntza beharrezkoa dela iritzita, protokoloan jasota dago urtero prestakuntza saioak egin behar direla. Indarkeria matxista egoeran dauden emakume eta adingabeei prebentzioa, hautematea eta akonpaimendua izeneko trebakuntza prozesuan parte hartu zuten protokoloan parte hartzen duten profesionalak joan den urtean.

Aurtengo plangintzari dagokionez, Mank-eko berdintasun teknikari Oihana Gallo San Roman eta Altsasuko Udaleko berdintasun teknikari Aizaga Zeberio Petriatik azaldu dutenez, "prestakuntza arloka banatu dugu, profesional talde bakoitzaren errealitateetara ahalik eta gehien hurbiltzeko". Gaineratu dutenez, "trebakuntzaren izaera praktikoagoa izanen da". Profesionalendako bi prestakuntza izanen dira aurtengoa. Alde batetik, oinarriko gizarte zerbitzuetako mankomunitateetako langileak, Genero Indarkeriaren Biktimendako Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko Arreta Osoko Taldeko langileak eta bi berdintasun teknikariak 6 saioko prestakuntza egingen dute ilbeltza eta garagartzaroa bitartean. Saio bakoitza 3 ordukoa izanen da. Bestetik, ibarreko hiru osasun eskualdeetako langileek bina orduko prestakuntza saioak jasoko dituzte.

Hezkuntza eta farmaziak

Beste bi esparruetan ere emakumezkoen indarkeriari aurre

egiteko prestakuntza emanen dute. Alde batetik, ibarreko ikastetxe eta herri guztietako elkarre eta eragileei zuzendutako hiru saio izanen dira. Horien bidez, "indarkeria matxistaren aurreko prebentzioa, detekzioa eta lehen jarduketa landuko da. Lehenik protokoloaren berri emanen dugu eta, ondoren, Eraikiz kolektiboko adituek emanen dute prestakuntza", azaldu dute teknikariek. Arakilgo prestakuntza saioa, Irurtzun eta Uharte Arakil bitarteko herriak hartzen dituen, ilbeltzaren 25ean, asteazkenean, Irurtzango kultur etxean egingen da. Altsasu, Olatzagutia eta Ziordikoa otsailaren 22an, asteazkenean, Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da eta Aranazkoa, Arruazu eta Urdiain arteko herriak hartzen dituen, otsailaren 23an, ostegunarekin, Etxarri Aranazko kultur etxean izanen da. Hiru saioak 16:00etatik 19:00etara izanen dira.

Sakanako eta Altsasuko berdintasun teknikariak ibarreko 21 farmazietako langileekin ere bilduko dira otsaila erdialdean. Izan ere, farmazialarien kolegioaren eta estatuaren lankidetzari esker, botikak indarkeria matxistari aurre egiteko "puntu morea" dira. "Estatutik jaso duten informazioaren berri jasotzeko, Nafarroako legediaren eta eskualdeko Protokoloaren berri emanen diegu. Gainera, indarkeria matxistari elkarlanean nola aurre egin aztertuko dugu", azaldu dute teknikariek.

OSASUN, ERAKUNDE, BOTIKA ETA IKASTETXEETAKO LANGILEAK PRESTATUKO DITUZTE

bertako - REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz ourrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450
BIZKAIA
946 523 935
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus



Manifestuko sinatzaileetako batzuk haren aurkezpenean. UTZITAKOIA

Sorionekuak manifestua, "segida emateko"

Euskararen aldeko manifestua sinatu eta aurkeztu dute Nafarroako 19 eragilek. Euskara nafar guztiona dela eta herritar guztion eskubideon alde egin dute. Ekainaren 10erako, Iruñean, herri mobilizazio "historikoa" eginen dela aurreratu dute

SAKANA

Nafarroako hainbat eremutako euskalgintza, literatura, kirola, politika, hezkuntza eta bertso-laritzako 19 eragilek sinatu eta aurkeztu dute Sorionekuak manifestua. Haien artean bi sakan-dar daude, Castillo Suarez Garcia idazlea eta Haizea Ramirez de Alda Pozueta Euskal Herrian Euskaraz eragile euskaltzaleko kidea. Manifestuaren sinatzaileek esan dutenez, "zorionekoak" izan eta "euskaraz ikasi, jolastu, mintzatu, barre egin, telebista ikusi, erosketak egin, fikzioa ikusi, amets egin" nahi dute; "euskaraz blaituta bizi nahi dugu, akaso, euskarari buruz gehiegi hitz egin gabe".

Esan dutenez, "ez dugu euskara kezkararekin eta ahaleginarekin lotu nahi", baina garbi dute euskarazko ikasketak ez daudela denen eskura, euskarazko kultur ekoizpena eta zabalpena txikia dela, administrazioan zerbitzuak euskaraz jasotzea ez dela erraza izaten, posta-kodeak nafarren

hizkuntza-eskubideak definitzen dituela, makina bat lanpostuetan euskara atzerriko hizkuntzen azpitik puntuatzen dela edo hizkuntza paisaia elebidunak maiz lan handia eskatzen duela.

Deia

Manifestuaren sinatzaileen iritziz, "euskaraz historia luzea du, baina, batez ere, etorkizun oparoa

edukiko du" Euskara Nafar guztiena dela gaineratu dute. Horregatik, haiekin bat egin nahi duten eragile sozial eta politikoei bat egitera dei egin diete, "euskararen aldeko bidea batera" egiteko. Sinatzaileen iritziz, "ardura politikoak exijitzeko garaia da, ez bazterketa betikotzeko garaia". Horrekin batera exijitu dute, "eskubide guztiak herritar orori bermatzeko, fikziozko mugarik gabe". Aldi berean, "euskarari dagokion lekua eta prestigioa emateko" eskatu dute, "izan ere, euskaraz hiztunak behar ditu eta hiztunok, eskubideak. Bereizkeria eta bazterketa ez dira aukera bat: pertsona guztiontzako eskubide guztiak nahi eta behar ditugu". Horregatik, "administrazioak erantzukizuna bere gain ardura hartzeko" eskatu dute. "Herritarron garaia" dela eta "etsitzea" ez dela aukera bat iritzita, etorkizuna euskaraz idazteko garagarriaren 10eko mobilizazioan parte hartzeri deitu dute.

Sinatzaileak

Iraia de la Torre, Uxue Rey, Saioa Alkaiza, Nerea Urbizu, Tania Gonzalez, Lorea Lizarreta, Lander Majuelo, Reyes Ilintxeta, Patxi Zabaleta, Haizea Lizarbe, Castillo Suarez, Jon Zapata, Haizea Ramirez de Alda, Garazi Gartzia, Ibai Sueskun, Leire Ubani, Ainhoa Jauregi, Xabi Gartzia eta Ane Eslava.



Ziordiko Mintzakide taldeko kideetako batzuk. ARTXIBOIA

Izena eman daiteke euskara talde txikitik praktikatzeko

Sei herritan martxan dauden Mintzakide taldeetan sartzea da aukera bat. Bestea, talde berria sortzea

SAKANA

Mintzakide izateko bi baldintza bete behar dira: euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko konpromisoa hartzea. Euskara praktikatu nahi dutenei zuzendutako programa da Mintzakide. Asmo bera duten pertsonen talde txikiak osatzen dira eta haiekin bidelari bat egoten da, euskara gehiago dakiena eta hizketaldiak dinamikoak izaten laguntzen duena. Taldekideek, elkarri lagunduz, euskararen ezagutzatik erabilerara egiten dute salto, beti ere, lagun giroan eta hizketan. Gertuko hizketaldien bidez aktibatzen dute euskararen erabileraren aldeko jarrera.

Ikasturte honetan dagoeneko dozena bat talde martxan daude: Altsasun lau, Irurtzunen hiru eta bana Uhartar Arakilen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzan eta Ziordian. Baina jakinik urte

berriarekin jendeak bere buruari helburu berriak jartzen dizkiola, euskara praktikatu nahi dutenendako Mintzakide programan izena emateko epea zabaldu dute ilbeltzean. Interesa dutenek izena emateko 600 482 024 telefonora Whatsapp mezua bidali edo sakana_mintza@aek.eus e-posta helbidera idatzi dezake. Izen ematea doan da.

Astean behingo ordu hori pasa daiteke paseatzen, kirola egiten, kafea hartzen edo bestela. Norberak eta taldearen artean erabakitzen da. Horretaz aparte, mintzakideak eta euskaldunak elkartu eta hizkuntza erabiltzeko jarduerak osagarriak antolatzen ditu programak, esaterako, mendi irteerak, erakusketetara bisitak eta beste. Sakanako ardura-dunak 30 jardueretako eskaintza pasa berri die mintzakideei eta haien erantzunaren arabera antolatuko ditu jarduerak horiek.

Pentsio duinen aldeko bost urteko borrokari kantari

Astehenean bost urte bete ziren pentsio publiko, duin, zuzen eta nahikoak izateko eskubidearen alde herritarrak kalera atera zirela. Orduetik mugimendua eratu eta antolatu da eta, gutxienez, 250 mobilizazio egin ditu kalean pentsio duinak aldarrikatzeko. Urteurrena dela eta sortutako abestia kantatu zuten asteheneko elkarretarazteetan.

Horrekin batera, mugimenduko kideek gogorarazi zuten lorpenak izan dituztela eta "milaka arrazoi ditugula" borrokan segitzeko. Horien artean, besteak beste, honakoak daude: aberastasunaren bidezko banaketa, soldaten eta pentsioen erosteko ahalmena berreskuratzea eta zerbitzu publikoak hobetzea. Gaztigatu zuten, borroka horretan bat egiten dute gazteek eta adinekoek, lanean ari diren langileak, pentsiodunak eta gizonezkoak eta emakumezkoak.



Etxarri Aranazko araztegia. ARTXIBOA

Eguzki plakak lau araztegi nagusietarako

Etxarri Aranatz eta Urdiain-Altsasukoan 2024an, Irurtzungoan 2025ean eta Lakuntza-Arbizukoan 2026an. 108 kilowatt puntako potentzia ezarriko da 190.523 euroko inbertsioa eginda

SAKANA
Nilsa enpresa publikoa araztegi-tan panel fotovoltaikoak jar-
tzeko 2023 eta 2026 arteko plan-
gintza egina du. 19 araztegi-tan
jarriko ditu eguzki plakak, tartean
ibarrekolautan. Neurri horrekin
Nilsako arduradunek "klima
aldaketaren kontrako borrokan
eta jasagarritasunaren aldeko

pausoak" eman nahi dituzte. Izan
ere, alde batetik, energia berriz-
tagarriak sustatu eta argindar
faktura murriztuko dute. Eta,
bestetik, CO₂ isurketak murriz-
tuko dituzte.

Hemeretzi araztegi horietan
eguzki plakak jartzeko Nilsak
1.128.739 euroko inbertsioa egitea
aurreikusten du. Haren %16,69

(190.523 euro) ibarreko lau araz-
tegi-tarako izanen da. Enpresa-
ren helburua da 647 kilowatt
puntako potentzia ezartzea,
%26,69 (108) Sakanan. Nilsak
jakinarazi duenez, araztegi guz-
tien artean 4.132.478 kilowatt
orduko kontsumoa dute urtean,
eta jarriko dituen azpiegiturekin
895.316 sortuko dira (%21,67).

Sakanakoak

Heldu den urtean bi araztegi-tan
jarriko dira panel fotovoltaikoak.
Etxarri Aranazko araztegi-tan
Nilsak jarriko dituen panelen
potentzia 22 kilowatt puntakoa
izanen da. Horretarako 39.735
euroko inbertsioa egingen du.
Etxarri Aranazko araztegi-tan
urtean 73.087 kilowatt orduko
kontsumoa du, eta azpiegitura
berriarekin argindar horren
%40,19 (29.375) araztegi-tan bertan
sortuko da. **Urdiain-Altsa-
suko** araztegi-tan, berriz, 50 kilowatt
puntako potentzia jarriko da
84.069 euroko inbertsioa eginez.
Burundako bi herrietako araz-
tegi-tan urtean 210.793 kilowatt
orduko elektrizitate kontsumoa
du eta plaken bidez haren %30
(63.248) sortzea espero dute.

Nilsak 22.234 euroko inbertsioa
eginen du 2025ean **Irurtzungo**
araztegi-tan 11 kilowatt puntako
potentzia duen azpiegitura jar-
tzeko. Irurtzungo araztegi-tan
urtean 176.229 kilowatt orduko
energia kontsumoa du eta eguz-
ki plaken bidez haren %8,73
(15.387) sortuko dute. Azkenik,
Lakuntza-Arbizuko araztegi-tan
eguzki plakak 2026 urtean jartzeko
aurreikusi du Nilsak. 25 kilowatt
puntako potentziako instalazioa
jartzeko 4.485 euroko inbertsioa
egitea aurreikusten du. **Lakun-
tza-Arbizuko** araztegi-tan urtean
88.184 kilowatt orduko energia
kontsumoa du eta azpiegitura
berriarekin haren %25,47 (31.624)
araztegi-tan bertan sortuko da.

Arbizuko Udalak ihote larunbaterako proposamena egin du

Hiri ihotea otsailaren 18an, la-
runbatarekin, eta herri ihotea
otsailaren 21ean, asteartearekin,
ospatuko da Arbizun. Ikusita
plazako estalpeko lanak oraindik
ez daudela despidituta eta herrian
taberna kopuru eskasa dagoela,
Arbizuko Udala larunbat eguer-
di-arratsalderako festa gune bat
antolatzeko prest dago. Udalaren
idea da kiroldegiko frontoian
herri bazkaria antolatzea, ondo-
ren dantzaldia egonen litzateke
eta, gainera, frontoiko kantxan
bertan taberna jartzea aurrei-
kusi du udalak. Bazkaria catering
batek emango luke, eta frontoia
berotzeko kainoi pare bat jarri-
ko litzukete.

Bi baldintza betez gero ideiak
aurrera egingen du. Bata, kantxa-
ko taberna hartzeko prest dagoen
talde edo elkarte bat egotea. In-
teresa dutenek udaletxean es-
kaera egin behar dute otsailaren
5erako. Beste baldintza da baz-
karirako txartel "nahikoa" saltzea.
Udalak jakinarazi duenez, hau-
rrendako eta helduendako menua
egonen litzateke. Udalaren asmoa
da txartelak otsailaren hasieran
eskuragarri jartzeko, otsailaren
12ra arte. "Beraz, ezinbestekoa
izanen da otsailaren 12a baino
lehen bazkaltzeko txartelak ero-
sita egotea, apuntatutako jende
kopurua jakiteko eta minimoak
betetzen direla ziurtatzeko".

Dozena bat udalerritan gas sarea luzatuko dute

Sakanako hamabi udalerritan
lanak egiteko asmoa du Nedgia
Navarra SA enpresak aurten:
Arakil, Irurtzun, Uharte Arakil,
Lakuntza, Arbizu, Etxarri Ara-
natz, Bakaiku, Iturmendi, Ur-
diain, Altsasu, Olatzagutia eta
Ziordian. Enpresak herrietan
dagoen gas sarea luzatu egingen
du, eta hari hargune berriak lotu.
Herri guztietan gas sarea metro
gutxi batzuk luzatuko du, guzti-
ra 340. Horrek ahalbideratuko
du hamabi herri horietan 39 gas
hargune berri jartzea. Nafarroa-
ko Gobernuaren oniritzia jasota,
egitasmoa otsailaren 14ra arte
jendaurrean ikusgai dago, egoki
jotzen diren alegazio, iradokizun
edo oharrak egin ahal izateko.

Gas sarea luzatzeko lanak 2023an

Herria	Metro	Harguneak
Arakil	10	2
Irurtzun	17	3
Uharte A.	35	3
Lakuntza	17	3
Arbizu	17	2
Etxarri A.	17	2
Bakaiku	35	2
Iturmendi	35	3
Urdiain	17	3
Altsasu	86	10
Olatzi	17	3
Ziordia	37	3
Guztira	340	39



HIZKETAN
BELEIXE IRRATIAREN
ELKARRIZKETA GUZTIAK:
WWW.GUAIXE.EUS

107.3 FM
beleixe

Osasun publikoaren aldeko bilkurekin segituko dute

Plataformak hurrengo hiru asteazkenetan Altsasuko osasun etxearen parean elkartzera deitu du

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Lau sendagile Altsasuko osasun etxean eta beste bat Olatzagutiko kontsultategian. Horiek ziren asteazkenean Burunda mendealdeko osasun eskualdean lanean zeuden medikuak. Baina egunetik egunera kopurua aldatzen ari da. Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformatik azaldu dutenez, hilaren 26an beste mediku bat lanean hasiko dela jakinarazi du Osasunbideak. Lan eskaintza publikoa egitean hutsik gelditu ziren bi plaza finkoetako bat beteko du emakumezko mediku horrek.

Plataformako kideendako pediatriaren egoera "oso kezkgarria da. Pediatra plaza eta erdi daude. Lehen pediatra bat zegoen, baina egin beharreko lanera ez zen iristen, eta, ittota, alde egin du". Gaztigatu zuten, "gaur egun pediatria zerbitzuan bi erizain eta erdiko lanaldia dago. Haiek ez dira pediatriak eta ikusten dituzten kasuak osasun eskualdeko medikuren batengana edo Iruñera bideratzea erabakitzeko dute".

Horregatik, plataformako hurrengo hiru asteazkenetan, 12:00etan, herritarrak Altsasuko

osasun etxearen parean protesta bilkuran parte hartzera deitu dituzte. Aldi berean, Altsasuko osasun eskualdeko Osasun Kontseilua biltzea eskatu du plataformak. "Badakigu bere presidentea horretan ahalegintzen ari dela, baina Osasun Departamentuko arduradunek egon behar dute presente bilkura egin ahal izateko. Haien azalpenak entzun nahi ditugu bilera horretan". Bestetik, jakinarazi dute Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko udalak erakunde adierazpena prestatzen ari direla eta hura udal bilkuran onartuko dutela.

Bestalde, Sakanako plataformako kideek jakinarazi dutenez, Bortzirietan antzeko egoera bizi dute. Horregatik, haiekin harremanetan jarri dira, elkarren berri izan eta elkarrekin zerbait egiteko aukerak aztertzeko. "Gure ahotsa entzunarazteko, beti hobe izanen da eskualde bat baino gehiagokoak elkarrekin aritzea, bakarrik baino".

Azkenik, Nafarroako plataformako kideak osasun kontseilariarekin eta Osasuneko zuzendari nagusiarekin bilera izanen dute hilaren 27an. Han izanen da sakandar bat ere.

DUELA 25 URTE...



Behin Betikoren lehen maketa

Lakuntzako hiltegi zaharrean bost urtez jo eta jo aritu ondoren, Behin Bbetiko rock taldeak bere doinuak abenduan grabatu zituen, zortzi abesti guztira. Haiek jasotzen zituen maketa herriko festetan, Sansaastinetan, salgai jarri zuten. Sakanan, Larraunen eta Iruñean izan zituzten erosleak ere. Lau taldekideak pozik zeuden jendeak emandako erantzunarekin. Diskoetxeen ateak jo eta kontzertuak ematea zuten buruan.

Aparkatzeko txartelak berriro daitezke jada

Mugikortasun urria duten pertsonen ibilgailuak aparkatzeko txartela kudeatzeko lege berria dago indarrean Nafarroan. Pertsona fisiko eta juridikoek eskuratu ditzakete. Martxoaren 24a baino lehen egin behar da eskaera

SAKANA

Nafarroako Gobernuak Gizarte Eskubideetako Departamentuak mugikortasun urria duten pertsonen ibilgailuak aparkatzeko txartela arautzen duen legea onartu zuen joan den urtean. Araudi horren arabera departamentuak Nafarroa guztiko txartel modelo bat sortu du eta txartel guztien datu base zentralizatu osatu du, azaroaren 14az geroztik erabilgarri dagoena.

Legeak jaso duenez, mugikortasun urria duten pertsona guztiek beraien ibilgailuak aparkatzeko dituzten txartelak berriro behar dituzte; martxoaren 24a arteko epea dute. Horretarako, erroldatuta dagoen tokiko erakundearen udaletxera joan behar dute. Bestela, Nafarroako Gobernuaren web orriaren bidez (<https://labur.eus/111rU>) egin daiteke eskaera. Aurrez aurreko eskaera egin denean, udalek tramitatuko dute eskaera. Udalak berak erabakiko du eskaeraren inguruan, eta oniritzia emanez gero txartela inprimatzeko eskatuko du. Aparkatzeko txartela posta bidez etxean jasoko du eskatzaileak.

Bi txartel mota

Txartelak iraunkorrak eta behin-behinekoak dira. Aurrenekoak desgaitasunaren balorazioa egin zaien eta eskubide horren onuradun izan diren pertsonen dute. Txartela bost urterako emanen zaie. Legearen arabera, aparkatzeko txartela baliozkoa izateko, titularrak txartela emateko eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu. Azkenik, pertsona bat hiltzen bada edo eskubidea galtzen badu, datu base zentralizatuak baja emango dio txartelari, baliozkoa izateari utzita, eta pertsona fisikoak edo erakundeak bere toki erakundera itzuli beharko du.

Behin-behinekoen kasuan, mugikortasun murriztua duten



Mugikortasun urriko pertsonendako aparkalekua urdinez markatuta. ARTXIBOA

Argibideak lortzeko

Gizarte Eskubideen Departamentuarengana jo: buelasaparcamiento@navarra.es posta elektronikora idatziz edo 848 683 000 telefonora deituz (astelehenetik ostegunera, 08:00etatik 17:30era eta ostiraletan 08:00etatik 15:00etara).

pertsonatza ofizialki jo ez diren arren, gaixotasun edo patologia oso larrien ondorioz beren adinerako eta gainerako baldintza pertsonaletarako normaltzat jotzen den bizi itzaropena nabarmen murrizten duten pertsonen zuzendutakoak dira, baldin eta, arrazoiz, desgaitasunaren balioespen eskaera arrunta garaitz izapidetzea ahalbidetzen ez badute. Txartelak gehienez sei hilabeteko iraupena izango du, eta gehienez ere urtebetez luzatu daiteke. Epe hori pasata, pertsonak ezin izango du berriro

behin-behineko txartelak eskuratu.

Bestalde, txartela pertsona fisikoek eskuratzeko beharrezkoak dira nortasun agiria eta onuradunaren argazkia. Txartela bakarra, pertsonala eta besterenezina da, eta titularrak ibilgailu bat gidatzen duenean edo ibilgailu horretan garraiatzen denean bakarrik erabiliko da. Txartelak ez dira lotuta egongo inolako autoren matrikularekin. Bestetik, txartela eska dezakete mugikortasun urriko desgaitasuna duten pertsonen garraio kolektiborako soilik diren ibilgailu egokituen titular diren pertsona juridikoek (zentroak, erakundeak eta abar); IFK zenbakia eta autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasunari arreta eskaintzeko gizarte zerbitzuak eman izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Txartel hori ere bakarra, pertsonala eta besterenezina da, mugikortasun urriko pertsonen garraio kolektiborako soilik den ibilgailuaren matrikula zenbaki bati lotuta egongo da, eta txartela eraginkorra izanen da soilik pertsona horiek garraiatzerakoan.

FESTAK

LAKUNTZA SAN SAASTIN

ILBELTZAK 20 Ostirala SAN SAASTIN EGUNA

Goizean goiz, Aurora.
11:00 Meza, elizan.
12:00 San Saastin ermitara erromeria.
13:00 Auzatea Lakuntzako Pertzaren eskutik, ermitan.
18:00 Danborrada txikia, plazan.
18:30 Elai Alai dantza taldearen emanaldia.
19:00 Alkate dantza.
19:30 Buruhandiak.
Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.
20:00 Auzatea.
21:30 Zezensuzkoa.
23:30 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

ILBELTZAK 21 Larunbata

11:00 Puzgarriak, pilotalekuan.
11:30 Lakuntzako auskias akordatzen yeiz? Aiaupenanik-en eskutik.
12:30 Erraldoi eta buruhandien irteera.

13:00 Jorge Canobas eta bere taldearen kontzertua, plazan.
Auzatea.
16:30 Puzgarriak, pilotalekuan.
18:30 Irantzu Gonzalez dantza eskolako taldeen dantza moderno emanaldia, plazan.
19:30 Oihan Vegarekin dantzaldia, plazan.
Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
20:30 Zezensuzkoa.
00:00 Oihan Vegarekin dantzaldia, plazan.

ILBELTZAK 22 Igandea

13:00 Haize Txikiak bandaren kontzertua, plazan.
Auzatea.

OLAZTI

ILBELTZAK 20 Ostirala SAN SEBASTIAN EGUNA

12:00 Meza, ermitan.
13:00 Otordua, San Sebastian auzoko bizilagunek prestatuta, ermitan.
17:00 Errosarioa, ermitan.

Sanantondarrek hitzordua dute asteburuan

San Anton animalien zaintzaileren eguna asteartean izan zen eta Lakuntzan hari eskainitako ermitan meza izan zen. Baina hari lotutako hitzordu nagusiak asteburuan egingen dituzte San Anton kofradiek.

Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ondoren **Dorrao**-ko kofradiako kideak, atzera ere, elkartuko dira. Sanantondar dorrobarrak larunbatean, 09:00etan, dute hitzordua herriko elizan, hildako kofradeen aldeko meza baitute. Haren ondoren kofradeak Angel Puio Lizarraga priorearen etxera joanen dira eta hildako kofradeen aldeko erresponstua errezatuko dute. Ondoren, Itur-gain elkartean kofradiako karguak zozketa bidez berrituko dituzte. Sanantondar dorrobarrak elkartean gosalduko dute. Bazkaldu aurretik prioreak eguneko kontuen berri emanen du.

Bakaikuko sanantondarrak ere larunbatean elkartuko dira, aurreko urteko egitarau murriztua bazter utzita eta betikoari helduta. Elizan hildako kofradeen omenezko meza izanen da 12:30ean. 14:30ean elkartean elkartuko dira eta Eduardo Urrestarazu Fernandez maiordomoak eta Xabier Goikoetxea beleroak aurreko akta irakurriko dute. Horrekin batera ardurak berrituko dituzte, belero dena maiordomo izatea pasako baita eta hark laguntzaile berria izanen baitu. Egiteko horien ondoren sanantondarrak bazkaltzera eseriko dira. Bazkaldu ondorengo Ainhua Kintana akordeoi-lariaren doinuek alaituko dute.

Elkartuko den azken kofradia **Iturmendikoa** izanen da, domekan, 10:30ean, elizan. Hildako kofradeen omenezko mezan haien estandarte aldean izanen dute. Segituan, apaiz etxan batzarra egingen dute: kofradiaren kontuen berri jaso eta haiek eguneratuko dituzte, halakorik balego, azken urtean izandako kide berrien eta hildakoen izen-abizenak idatziko dituzte, arduradun berriak aukeratu dituzte (prieora eta abanderadoa) eta hildako kofradeen aldeko erresponsturekin (Aita Gurearen errezoa) despedituko dute batzarra. Sanantondar iturmendiarrak Aritzaga elkartean bazkalduz osatuko dute eguna.



Urdaingo sanantondarrak larunbat eguerdian dute hitzordua elizan, hildako kofradeen aldeko meza izanen baita. Elizkizunaren ondoren, apaizak eliz atetik herriko soroak eta azien-dak bedeinkatu eta kofradeek beraien ereserkia abestuko dute. Aldamenean dagoen Tintinurrri elkartean gosalduko dute kofradeek. Handik herriko etxera joanen dira batzarra egitera.

Pandemiagatik bi urte batzarrik egin gabe eman dutenez, nahikoa lan izanen dute kontuak, kideek ordaindutako kuotak, kofradeen altak eta bajak egunean jarri, ardurak berritu eta haiek akta liburuan jartzeko. 14:30 aldera Aitziber elkartean bazkaldu ondoren, 18:00ak inguruan bi maiordomo edo buruzagi berrien etxeetara joanen dira kafea eta kopa hartzera.



LAKUNTZAKO ESKOLA

LAKUNTZA Lakuntzako eskolako haurrak atzo, Sansaastin bezpera, herrian zehar danborra jotzera atera ziren.



**ARGAZKI
LEHIAKETA**

URTEKO LEHEN ELURTEA

Parte hartzaileen artean Guaixeko produktuen saski baten zozketan egingen dugu.

guaix

Ibarrak 94 herritar irabazi

Sakanak 20.367 biztanle zituen 2022ko ilbeltzaren 1ean, urte bat lehenago 94 biztanle gehiago. Haietatik 10.492 gizonezkoak eta 9.875 emakumezkoak ziren; bien arteko aldea mantendu egin da. Kilometro karratuko 66,64 sakandar bizi gara

Alfredo Alvaro Igoa / Iune Trecet Obeso SAKANA

Hirugarren urtez jarraian Sakanako biztanleriak gora egin zuen 2021ean. Urtea hasi baino %0,46 biztanle gehiagorekin (94) bukatu zen urte eta 2022a 20.367 sakandar izanik hasi genuen. Hiru urtetan 178 sakandar gehiago daude. Biztanleria handitu bada ere, oraindik ere 2013ko populazio errekorretik urruti dago Sakana, urte hartan 20.809 sakandar baino, 2022 hasieran baino 442 gehiago.

Generoari dagokionez, sakandarren %51,51 (10.492) gizonezkoak dira eta %48,49 (9.875) emakumezkoak. Populazioan aldaketa izan bada ere bi generoen arteko aldea 617 gizonezko gehiago izaten segitzen du (%6,33).

Udalerrika

Sakanako 15 udalerrietatik hamaitan iko zen biztanleria eta lautan jaitsi. Hazkunde portzentajeari erreparatuta, Arruazu nabarmentzen da %6ko hazkundearekin 6 arbasuar berri izatean, hiruna emakumezko eta gizonezko gehiago. Aurreko urtean galdutako populazioa berreskuratatu dute Arruazun. Puntu bat baino gehiagoko hazkundera izan dute hiru herrik: Ergoiena (%1,91, 7 erguendar gehiago; 5 gizonezko eta 2 emakumezko gehiago), Uharte Arakil (%1,28, 10 gehiago, denak gizonezkoak) eta Lakuntza (%1,18, 15 gehiago; 18 emakumezko gehiago eta 3 gizonezko gutxiago).

Gainontzeko zazpi herrietan biztanleria hazkundera %1 baino txikiagoa izan da: Arbizu (%0,99, 11 gehiago; 9 gizonezko eta 2 emakumezko), Altsasu (%0,85, 63 gehiago; 34 gizonezko eta 29 emakumezko), Etxarri Aranatz (%0,68, 17 gehiago; 20

emakumezko gehiago eta 3 gizonezko gutxiago), Bakaiku (%0,57, 2 gehiago; 3 emakumezko gehiago eta gizonezko bat gutxiago), Olatzagutia (%0,34, 5 gehiago; 12 gizonezko gehiago eta 7 emakumezko gutxiago), Irurtzun (%0,13, 3 gehiago; 13 gizonezko gehiago eta 10 emakumezko gutxiago) eta Arakil (%0,1 eta 1 gehiago; 2 emakumezko gehiago eta gizonezko 1 gutxiago).

Gainontzeko lau herritan biztanleria jaitsi da: Urdiain (%4,22, 28 urdindar gutxiago; 18 gizonezko eta 10 emakumezko gutxiago), Iturmendi (%2,55 eta 11 gutxiago; 8 gizonezko eta 3 emakumezko gutxiago), Ziordia (%1,7 eta 6 gutxiago; hiruna emakumezko eta gizonezko) eta Irañeta (%0,6 eta 1 gutxiago; bi gizonezko gutxiago eta emakumezko 1 gehiago).

Joan den urte hasieran Arakilek, Lakuntzak eta Etxarri Aranatzek haien populazio errekorra lortu zuten, 967, 1.283 eta 2.506 biztanle hurrenez hurren. Arbizuk 2018an lortu zuen errekorra berdindu zuen atzera ere 1.124 biztanle izatean. Irurtzunek, berriz, bosgarren urtez segidan populazioa irabazi du.

Bestetik, Ergoienak 2014 urteaz geroztik herritarrek galtzeko zuen joerarekin hautsi zuen. Irañetak laugarren urtea du populazioa galtzen. Uharte Arakilen, Arruazuren eta Bakaikuren kasuan bi urteko beheko joerari buelta eman diote. Al-



SAKANAKO 15 UDALERRIETATIK HAMAIKETAN IGO ZEN BIZTANLERIA ETA LAUTAN JAITSI

tsasuk eta Olatzagutiak jaitsiera urte baten ondoren, biztanleak hartu dituzte atzera ere. Azkenik, Iturmendik aurreko urtean biztanleria errekorra lortu ondoren, 2022 hasieran gutxiago ziren. Urdiainen eta Ziordian bi urtetan gora egin ondoren, azkenekoan behera egin zuen biztanleriak.


Biztanleria banaketa eta dentsitatea Sakandarren %36,84 Altsasun bizi dira. Bi zifrako ehunekoak dituzte ere Etxarri Aranatzek (%12,3) eta Irurtzunek (%11,29). Mila biztanletik gora duten Olatzagutian, Lakuntzan eta Arbizun sakandarren %7,32, %6,3 eta %5,52 bizi dira hurrenez hurren. Sei herri horiek ibarreko populazioaren %79,59 (16.206) dute, bostetik lau. Sakandarren gainontzeko %20,43 bederatzi udalerritan bizi da: Arakil (%4,75), Uharte Arakil (%3,88), Urdiain (%3,12), Iturmendi (%2,06), Ergoiena (%1,83), Bakaiku (%1,74), Ziordia (%1,70), Irañeta (%0,82) eta Arruazu (%0,52).

Udalerriek tamaina bera ez dutenez, haien populazio dentsitatea ere desberdina da. Udalermio txikia eta herritar ugari dituenek, Irurtzun da biztanleria dentsitate handiena duen Sakanako herria: 652,75 herritar kilometro karratuko. Atzetik ditu Altsasu 279,95 eta Lakuntza 116,29. 75 biztanle km karratuko baino gehiago hiru herrik dute: Arbizu 78,58; Olatzagutia 75,95 eta Etxarri Aranatz 75,89. 20 eta 45 artean daude sei udalerririk: Iturmendi 42,39; Urdiain 42,17; Bakaiku 30,34; Ziordia 24,05; Uharte Arakil 20,85 eta Irañeta 19,89. Dentsitate txikiena duten hiru udalerririk Arruazu 18,49, Arakil 18,47 eta Ergoiena 8,92 dira.


2022eko biztanleria: 2021




2022ko biztanleria Sakanan generoaren arabera



1ekoarekin alderaketa




Arbera



Sakanako biztanleriaren bilakaera 1998-2022

■ Sakana ■ Gizonezkoak ■ Emakumezkoak





Azteraispilurik gabeko Sunsundeguien autobusa. Haien ordez kamerak ditu ibilgailuak. UTZITAKOIA

ALTSASU

Sunsundegui CEO edo erakundeko exekutibo goren Jose Ignacio Murillok jakinarazi duenez, "Sunsundegui gaur egun 281 langile gaude, haietatik 27 ikerketa eta garapen departamentuan ari dira lanean. Langileen %83 eta %85 artean finkoak dira. Hurrengo hilabeteetan langile kopuru horri helduko diogu, horrela gai garelako urteko plana betetzeko". La Tribuna de la Automoción hedabideari emandako elkarrizketan eman ditu argibideak Murillok. Azaldu duenez, enpresak egunean hiru autobus egiteko gaitasuna du. Murillok elkarrizketan "gure produktuekin, haien fidagarritasunarekin eta iraupen handiarekin bezeroei konponbide indibidualizatuak eskaintzeko dugun gaitasuna" nabarmentu du.

Murillok elkarrizketan esan duenez, "pandemiaz geroztik estatuko merkatuak behea jo du, garraio enpresa gehienek kolpe handia hartu zuten. Errekupe-razioa izaten ari da, lehenik hiri garraioan izan zen, gero ibilbide luzeko autobusekin. Baina garraio enpresek arazoekin segitzen dute. Espero dugu aurten egoera konpontzen hasiko dela eta heldu den urtean bere onera bueltatzea". Enpresek autobusak erosteko inbertsioa egiteko "denbora behar" dutela argitu ondoren, "baina noizbait berri beharko dute flota, baikorrak gara".

Aurtengoa "trantsizio urtea izanen da eta 320 unitate egiten ditu-

Sunsundegui aurten 320 autobus egitea aurreikusten du

Autobus karroztaileak joan den urtean 210 bat ibilgailu egin zituen, haietatik %80 inguru esportatu zen; gehien bat SC7 modelo. Enpresa Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean autobusen simulazio programa garatzen ari da

gu, %70 esportatzeko", argitu du Sunsundegui buruak. Merkatu nagusiak Arabiar Emirerri Batuak, Israel eta Erresuma Batua dira. Azaldu duenez, "merkatu globalean azken sei urteetan saldutakoaren %36,5 SC7 modelo izan da, %23,5 SC5, %36 SB3 eta SB3 Go modeloak eta %4 SB3 artikulatua". Azken sei urteetan esportatutakoaren %63 Israel, Irlanda, Frantzia eta Portugalera joan zen. "Txikiagoa bada ere, Italian, Suedian eta ekialdeko herri batzuetan presentzia dugu. Gure helburuak Europa eta Ekialde Hurbileko merkatuetan zentratzen dira", gaineratu du exekuti-

MERKATUA 2024AN ERREKUPERATZEA ETA 2025EAN BERE ONERA BUELTATZEA ESPERO DUTE

boak. Aitortu du autobusak ez saltzean ordezko piezen salmenta handitu dela.

Hornitzaileez

Pandemiaren lehen urtean tresneria elektronikoen gabeziak karrozatzeko bastidore gabe utzi zituen eta, horregatik, lantegiak bere jarduna eten zuen. Ondoren, hainbat piezak jasotzeko atzerapenak izan dituzte, esaterako, argiztapenekoak. "Ondorioz, matrikulazioak atzeratu egiten dira eta autobusak lantegian denbora luzeagoaz egoten dira. Lehen, batzaz beste, eskaera genuenetik autobusa eman arteko epea bi hilabetekoa zen, orain hirukoa. Bezeroen aldetik ez da arazoa". Bestetik, Ukrainako gerra dela eta, Errusiatik ekartzen zituzten zenbait lehengai orain ezin dituzte handik ekarri eta zaildu egin zaie.

Enpresa altsasuarreko arduradunak azaldu duenez, "hornitzaileen prezioen igoerak eta inflazioagatik soldatak igotzeak kostuak pandemiatik gaur egunera %12 baino gehiago handitzea ekarri du. Baina igoera guztia ezin du bezeroak ordaindu, %8 eta %10 artean igo ditugu prezioak; irabazi margena galdu dugu".

Edozein autobus modelotan atzeraispiluen ordez kamerak jartzeko aukera eskaintzen du enpresak lastailaz geroztik. "Momentuz ez diegu guztiei jarriko. Produktua garestitzen du, baina mantentze aldetik ispiluak dira gehien hausten diren elementuak. Ibilgailuaren bizitza guztia kontuan izanda, ez dago halako alderik". Gaur egun ibilgailua gidatzeko elementu guztiak integratzeko eta, autoetan bezala, pantaila batetik ibilgailu guztia erabili ahal izatea lantzen ari dira". 2024an

Hainbat izendapen eginak

Sunsundegui enpresak hiru izendapen berri eginez hasi du urtea. Joan den urtera arte karrozeriaren zuzendari teknikoa izan zen Jose Felix Aramendiak Jose Ignacio Murillo ordezkatu du zuzendari nagusi karguan. Aldi berean, Murillo konpainiako CEO edo erakundeko exekutibo goren bihurtu da, eta aurrerantzean ere administratzaile izaten segituko du. Bestetik, Asier Moreno da Sunsundeguien ordezkarik komertzial berria iparraldean. Azkenik, Alvaro Linzoain Sunsundeguioko merkataritza-taldean sartu da esportazio-arduradun gisa, nazioarteko merkatuetan duen presentzia areagotzeko.

autobus elektrikoak karrozatzen hasiko da Altsasuko enpresa.

Unibertsitatearekin elkarlanean Sunsundegui eta Euskal Herriko Unibertsitatea Aerosun proiektua garatzen ari dira. Haren helburua da enpresa altsasuarren autobusen isuriak eta kontsumoa %6 murriztea. "Haize-tunel batean gure produktuen portaera simulatzen dugu. Horri esker, eredu teorikoan hobekuntza aerodinamikoko neurriak har ditzakegu, eta ez eredu errealean, eta gero probatu. Simulazioak izango dituzun hobekuntzak ikusteko aukera ematen dizu. Logikoki, gero egiaztatu egin behar dira, benetako formatuan, baina ez duzu azken produktuarekin probarik egin behar, modelizatuta daukazu eta zer forma hartu behar dituzun adierazten dizu", argitu du Murillok. Programak "erabakiak hartzea azkartzen du". Gaineratu duenez, "garrantzitsua da, kontsumoa lehiakortasun faktore izango den ezaugarrietako bat izango delako. Izan ere, etorriko den lege batek, ibilgailuaren sartzeko-koefizientearen arabera, tratamendu fiskal bat edo beste emango dizu".

FUTBOL PREFERENTEA

16. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Itaroa Huarte	0-0
Doneztebe - Etxarri Aranatz	4-0
Lagun Artea - Burladés B	1-4

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Universidad de Navarra	35
7 Altsasu	25
16 Etxarri Aranatz	10
18 Lagun Artea	5

HURRENGO JARDUNALDIA	
ILBELTZAK 21, LARUNBATA	
15:45 Etxarri - Rotxapea (San Donato)	
ILBELTZAK 22, IGANDEA	
15:45 Aibarés - Lagun Artea (San Lorenzo)	
17:45 Burladés B - Altsasu (Ripagaina)	

Altsasuk gora begiratu nahi du
Huarteren kontra husna berdindu eta gero, sailkapenean gora egiteko Burladési irabazi nahian dago Altsasu.

Etxarrik Rotxapea hartuko du
Doneztebeko porrota ahaztuta, Etxarrik Rotxapearen kontra hobe aritu nahi du, puntuen faltan baitago. Arerio gogorra du.

Lagun Artea, zuloan barneratzen
Talde lakuntzarrak azken postuan sartuta jarraitzen du. Aibarés du arerio, zaila aurrekusten den partidaren.

EMAKUME PREFERENTEA

11. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Altsasu - Lagunak	1-0
SAILKAPENA	
EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA	
1 Mutilvera B	29
6 Altsasu	13

HURRENGO JARDUNALDIA	
ILBELTZAK 22, IGANDEA	
16:00 Marcilla - Altsasu (El Puente)	

Altsasuk irabaziz ekin du urtea
Lagunak-en ondoren, Marcilla irabaztea da neska altsasuarren hurrengo erronka.

FUTBOL ERREGIONALA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Beti Kozkor B - Altsasu B	5-1
SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA	
1 Beti Onak B	36
12 Altsasu B	12

HURRENGO JARDUNALDIA	
ILBELTZAK 22, IGANDEA	
15:30 Altsasu B - San Ignacio (Dantzaleku)	

Altsasu San Ignacioren kontra, etxean
Lekunberriko jipoi ahaztuta, arerio zuzena hartuko du Altsasuk Dantzalekun.

Erbetik eta Izagirrek Antipodetan hasi dute lehia

TXIRRINDULARITZA Australiako Tour Down Underren ari dira parte hartzen. Erbitik hemeretzigarren denboraldia du eta Izagirrek hamalagarrena. UCI Pro Team mailako Josu Etxeberriak eta Igor Arrietak osatzen dute profesional sakandarren plantilla

Maidar Betelu Ganboa SAKANA
2023ko txirrindularitza profesional denboraldia hasi da, UCI Pro Tour mailako Australiako Tour Down Under Tourrarenkin. Movistar Team taldearekin bertan ari dira lehian Imanol Erbiti Olo hiriberriarra eta Gorka Izagirre Insausti ziordiarra, sasoi beteetan eta lan bikaina eginez.

Ezinbesteko beteranoak
Imanol Erbitik 39 urterekin profesional gisa bere hemeretzigarren denboraldiari ekin dio, eta guztiak eskudera berean, Abarcan, egungo Movistar Team taldean. 13 Tourretan, 14 Vueltatan, Giro batean eta beste hamaika lasterketatan parte hartu du, eta langile fina da, liderrek alboan nahi izaten duten ezkutari trebea. Gutxi izango dute bere esperientzia. Aurten "jarraikortasuna izatea, disfrutatzea eta dagokion liderrari laguntzea", horiek dira bere nahiak.

Gorka Izagirrek 35 urte ditu eta aurten bere hamalagarren denboraldia osatuko du profesional gisa. Movistar Team taldean bere bosgarren denboraldia egingo du, 2014-2017 eta 2022-2023 denboraldiak kontuan hartuta. Profesional mailan bederatzigaraipean ditu eta txirrindulari indartsua da, bakarka garaipenak



Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre, Tour Down Underreko aurkezpenean. MOVISTAR TEAM

ERBITI, IZAGIRRE, ETXEBERRIA ETA ARRIETA, LAU SAKANDAR DAUDE PROFESIONALETAN

lortzeko gai izateaz gain, liderren konfiantzako talde gizona.

Etxeberria eta Arrieta
UCI Pro Tour kategorian dabilzan Erbitiri eta Izagirreri UCI Pro Team kategoriako Josu Etxebe-

rria Azpilikueta iturmendiarrak (Rural Kutxa-Seguros RGA) eta Igor Arrieta Lizarraga uharte arakildarra (Kern Pharma) gehitu behar zaizkie. Izan ere, joan zen urteko lau sakandarrek jarraitzen dute martxan profesionaletan. Etxeberriak bere hiru garren denboraldiari ekingo dio eta Arrietak, aldiz, bere bigarren denboraldiari. Euren bi taldeek denboraldiko aurkezpena egin dute eta "progresioa izaten jarraitzea" eta Vueltarako gonbidapena lortzea dira bi eskudaren helburu nagusiak.



Juniorren proba. FEDERAZIOA

Begiristain, Regil eta Imaz Espainiakoan

Asteburuan Espainiako Ziklo-kros Txapelketa jokatu zen Vic-en (Herrialde Katalanak). Nafarroako selekzioarekin junior mailan bi sakandarrek hartu zuten parte, Mikel Regil altsasuarra (Aralar T.T.) eta Iker Begiristainek (Burunda T.T.). Bost itzuli osatu behar izan zituzten, eta Euskadiko selekzioko Gorka Corres izan zen txapeliduna (40:45). Mikel Regil lehen nafarra izan zen, 22. postuan (44:23) eta Iker Begiristain 50. iritsi zen (46:36).

Kadeteek lau itzuli osatu behar izan zituzten, eta Kataluniako selekzioko Roc Cubi gailendu zen (32:52). Ekain Imaz altsasuarra (Burunda T.T.) 25. postuan sailkatu zen, lehen nafarra (35:23).

Txanponaren bi aldeetan

PILOTA Binakako derbi sakandarra Urdulizen jokatu da. Ezkurdia eta Martija krisian daude eta irabazi beharrean daude, "bai ala bai. Ez gara gure maila ematen ari, eta buelta eman behar diogu" argi du Ezkurdia. Irribarriak eskuko mina duen Elordi liderra ordezkatu du, "opari ederra. Zabaletarekin jokatzeko bizitza aseguru da" dio Aramakoak.





Aurreko larunbatean Olaztiko Nafarroako Automobilismoaren galan saritutako guztiak. AVM

Arakil Motorsport, Galarza eta Palacios, sarituak

AUTOMOBILISMOA Olaztik Nafarroako Automobilismo Federazioaren gala hartu zuen eta 2022 denboraldiko hiru sari Sakanan geratu ziren. Sakana Motorsportek lagundu zuen galaren antolakuntzan eta larunbatekoa automobilismoaren festa ederra izan zen

Maider Betelu Ganboa OLAZTI

Larunbatean Nafarroako Automobilismo Federazioak gala antolatu zuen Olaztiko Kultur Etxean. Guztia prestatzeko federazioak Sakana Motorsport eskuderiaren laguntza izan zuen. Ekitaldian 2022 denboraldiko automobilismo txapelketa ezberdinetako sariak banatu ziren eta aitortza eta omenaldiatarako tartea izan zen ere.

“Urtero denboraldiko sari banaketa egiten da, toki ezberdinean. Federaziotik aurretik guri galdetu ziguten, ea gala Sakanan egin ahal genuen. Tokia eta auzatea lortzea, eta sari ematean parte hartzea, ez ziguten aparteko ezer eskatu, eta baiezkota eman genuen” aipatu du Sakana Motorsport eskuderiako Haizea Galarza Barandiaranek.

Gala hasi baino lehen Sakana Motorsportek autoen topaketa txikia egin zuen Olaztiko plazan, “herriari xarma emateko. Lasterketako auto batzuk elkartu

genituen plazan, ekitaldiaren iragarle”.

2022ko Nafarroako Automobilismo Lasterketetako sarituen artean hiru sakandar zeuden. Iñigo Galarza Arregi 27 urteko kopilotu iturmendiarrak Asfaltoko Rallyen Nafarroako Txapelketako II. Klaseko kopilotu onenaren saria jaso zuen, bere pilotuak, Alvaro Gutierrezek, pilotu

onenaren saria jaso zuen bitartean (Saxo VTS). Bestalde, Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketan monoplazen hirugarren saria jaso zuen Iker Palacios Andueza lakuntzarrak (BCR B52), Luis Miguel Alonso txapeldunaren eta Arkaitz Ordoki bigarrenaren atzetik. Hirugarren saria Arakil Motorsportendako izan zen, Nafarroako Abiadura Txapelketako

eskuderia onenaren saria hain zuzen ere. Aipatu eskuderiaren pilotu arakildarrak, larraundarrak eta Iruñerrikoak biltzen dira.

Olaztiko Kultur Etxea txiki geratu zen ekitaldirako. Sari banaketa egiteaz gain, Nafarroako Mendi Txapelketako junior mailako irabazle Iker Etxeberriak eta Mikel Azconak omenaldia jaso zuten, azken honek turismo mailan lortutako munduko tituluarengatik. Bere aitak jaso zuen saria. AVM-ko Aitor Goikoetxea eta Oscar Arancón argazkilariei aitortza egin zien Sakana Motorsportek. “Lasterketa guztietan argazkiak egiten egoten diren AVM-ko Peli eta Piti. Bi txapela, argazki erraldoia eta jostailuzko argazki kamara bana oparitu genizkien. Ez zuten espero, eta pozik hartu zuten. Harreman handia dugu eurekin. Kartelendako irudiak behar baditugu, beti uzten dizkigute. Beraiek dira guk antolatzen ditugun lasterketen oroitzapen horiek oparitzen dizkigutenak, argazkien eta bideoen bidez, eta eskertuta gaude eurekin. Automobilismoari ematen dioten ikusgarritasunari aitortza egin nahi izan genien” gogoratu du Galarzak. Bukatzeke, Barandi tabernan auzate ederraz gozatu zuten eta hasi berria den 2023 denboraldia izan zuten hizpide pilotu, kopilotu eta eskuderiako ordezkariak, federazioko kideekin batera.

Olaztiko Rallysprinta eta Urbasa

Aurten bi proba antolatuko ditu Sakana Motorsportek, “apirilaren 22an Olaztiko Rallysprinta, eta urriaren 7an Urbasako Igoera. Eskuderiaren dinamika eta erritmo berean jarraitzen dugu lanean eta pozik gaude, denboraldi berrirako gogotsu”.

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Abenduaren 6an Espainiako Kluben Arteko Taekwondo Txapelketa jokatu zen Alacanten. Altsasuko Bargagain Taekwondo klubeko taekwondistek emaitza paregabea izan zuten: Irea Etxanizek urrezko domina lortu zuen aurre kadete mailan eta Erkuden Moreno Muñoz altsasuarra brontzezko domina lortu zuen 21 urtez azpiko mailan. Morenok 17 urte bete zituen abenduan, eta hemendik aurrera bere helburua “dominak baino, progresioa lortzea da”.

Espainiako Taekwondo Txapelketetan zenbait domina lortu dituzu guztira? 2017an kadete mailan, 2022an junior mailan eta 2022an 21 urtez azpikoan brontzea izan zinen.

Espainiako Txapelketetan zortzi domina dituz guztira, hori uste dut. Sarri geratzen naiz hor, brontzean. Urduritasuna beti dago, kirolaren eta lehiaketaren zati da, baina gertatzen dena da errondak gainditu ahala azken txanpan hoberenetarikoeekin geratzen zarela, eta une horretan puntu batengatik edo salto batengatik irabazi ahal duzu edo galdu. Azkeneko errondak zailtzen dira, baina hobereena da indartsu ikusten dudala nire burua, onenekin borrokatzea trebetasunarekin. Askotan Europa mailan dominak lortu dituztenekin borrokatzen dut azken txanpa horietan, eta hori oso seinale ona da.

Txikitatik hasi zinen taekwondoan, Bargagain klubean, Altsasun. Zerk erakarri zintuen?

Bargagainen kartel bat ikusi nuen, eta amari esan nion borrokatzen ikasi nahi nuela. Oso lotsatia nintzen eta harremanak izatea kostatzen zitzaidan, eta iruditzen zitzaidan integratzeko moduegokia izan ahal zela. Oraindik ere harremanena kostatzen egiten zait, baina hobetu ahal dudan zerbait dela ikasi dut. Asko hobetu dut, baina oraindik badut zer landu eta hobetu.

Eta taekwondoak horretan lagundu zizun? Arerioekiko errespetua funtsezkoa da kirol honetan, baita araei begirunea eta errespetua ere. Eta talde ederra duzue Bargagainen.

Bai, hala da. Bargagainen nire bigarren etxea aurkitu dut. Eroso sentitu naizen lehen lekua da, eta familia txiki bat gara. Bargagainen errespetua oso finkatua dugu eta, bestalde, harreman oso ona dugu gure artean.

Irene Beraza, Nafarroako Enduro txapeldunordea

Larunbatean Nafarroako Motoziklismo Federazioak 2022 denboraldiko trofeoak banatu zituen Los Arcos zirkuituan. 10 urteko Irene Beraza Larreta irintarra emakumezkoen Nafarroako Enduro eta Cross Country Txapelketako haurren kategoriako txapeldunordea izan zen, eta emakumezkoen Nafarroako Enduro Outdoor mailan ere bigarren sailkatu zen.



Irene Beraza Larreta, ezkerrean, Nafarroako Enduro txapeldunordea. UTZITAKOIA

Zeinen polita, kirol batek, entrenamendua eta lehiaketa eskaintzeaz gain, aldi berean balio horiek sustatu eta egunerokotasunean zuzlagundu izana.

Bai, guztiz. Borrokatzen ikasten dugu, fisikoki sasoiaren egoten eta lana ongi egiten. Baina, horretaz gain, beste balio batzuk jasotzen ditugu: errespetuarekin batera frustrazioa ongi kudeatzea, hobetzen ikastea, gure barrenean indarra bilatzea, diziplina eta halako balioak, eguneroko bizimoduari aurre egiteko oso baliagarriak direnak.

Gerardo Montero Rivera irakaslea da Bargagaingo zutabeetako bat. Taldean duen inplikazioa izugarrikoa da. Nolako entrenatzailea da Gerardo?

Oso ona da bere lanean eta gure kirola, taekwondo, bere bizia da. Pasioz aritzen da. Guztiok asko maite dugu, oso pertsona jatorra delako. Beti bilatzen ditu moduak gure maila hobetzen laguntzeko, eta askotan bere burua sakrifikatzen du gure onena ateratzeko eta guk gure bertsiorik hoberena eman dezagun. Bera bezalako entrenatzaile bat izatea babes handia da, eta asko eskeretzen diot. Esango nuke lagun bat bezala ikusten dudala. Giro egozia sortzen du, oso dibertigarria. Berari esker oso ongi pasatzen dugu kirol honetan.

Taekwondoan hasi eta berehala, txikia zinenetik emaitza onak hasi zinen pilotzen. Nafarroako txapel-duna izan zara sarritan.

Bai, ez dakit zenbat domina ditudan. Egia da Nafarroan ez dagoela taekwondista asko eta borrokatzeko lehiaketa asko, baina... **Zein izango da hurrengo taekwondo txapelketa?**

Larunbatean Nafarroako Konbarte Txapelketa jokatuko da Larrabiden eta emakumezkoen 46 kiloz azpiko maila absolutuan lehiatuko naiz. Bestalde, ilbeltzaren 14an Zaragozako Opena jokatuzen eta Nafarroako selekzioarekin hartu nuen parte eta brontzea lortu nuen. Irea Etxanizek urrea eta Leire Etxanizek zilarra lortu zuten. Nire curriculum dela eta, Nafarroako Gobernuak teknifikazio programan onartu ninduten, eta sarritan hautatzen naute txapelketetarako.

Teknikazio zentroan zaudenez, Bargagaingo entrenamenduez gain beste espezifiko batzuk egiten al dituzu?

Bai. Teknikazio programan nagoenez, Iruñeko erresidentzia

"Dominak ongi daude, baina bizitzen duguna da garrantzitsuen"

ERKUDEN MORENO MUÑOZ BARGAGAIN KLUBEKO TAEKWONDISTA

TAEKWONDOA Abenduan Espainiako Kluben Arteko Taekwondo Txapelketan brontzeko domina lortu zuen Erkuden Moreno altsasuarrak 21 urtez azpiko mailan



Erkuden Moreno, Espainiako Kluben Artekoan lortutako dominarekin. UTZITAKOA

batean nago, eta beka bat dut ikasketak egin ahal izateko eta erresidentzian egoteko. Abenduaren 28an 17 urte bete nituen, eta Batxilergoko bigarren mailan nago, Osasun Zientzietako Batxilergoa ikasten, gustura. Zientzia arloa oso gustuko dut, baina arazo bat dut, gauza asko gustatzen zaizkidala (kar, kar...) eta horregatik zerbaitek aukeratzea zaila izaten da niretako. Psikologia edo bioteknologia ikasi nahiko nuke. Horretaz gain, antzerkia egin nuen eta musika instrumentuak jotzen ditut, artea maite dut... orduan zaila egiten zait zer egin aukeratzea. Gaztea naizenez, badut erabakitzeke tartea.

Egunak 24 ordu ditut, nola moldatzen zara aipatu duzun guztia aurrera eramateko?

Zortzi urterekin bibolina jotzen hasi nintzen eta aurten pianoa

"KIROLARI GISA GEHIEN BETETZEN NAUENA DA PROGRESIOA DUDALA IKUSTEA"

"ERRESPETUAREKIN BATERA, FRUSTRAZIOA ONGI KUDEATZEA ETA GURE ONENA EMATEA LANTZEN DUGU"

eta ukelelea jotzen hasi naiz. Taekwondo gehituta, erotuta ibiltzen naiz, baina lagunekin egoteko denbora ere hartzen dut, oso garrantzitsua.

Bargagain klubean martxa onean zabilzate. Esaterako, duela gutxi Miranda de Ebron eta Iruñean Ope-nak jokatu zenituzten eta emaitza onak lortu zenituzten.

Bai, aipatu dituzun horietan dominak lortu nituen, brontzea eta zilarra, ustez. Bargagain klubarekin Espainiako Txapelketetan lau domina lortu ditut eta beste lau Nafarroako selekzioarekin. Gehienak brontzekoak dira, zilarrezko bat izan ezik. Bestalde, Bulgariako Nazioarteko Txapelketa batean ere beste brontze bat lortu nuen.

Irati Irigoien, Irea eta Leire Etxaniz, Rania Machour, Zoe Martin, Aaron Rodriguez, Mohamed Essobai, Joseba San Miguel... talde bikaina osatzen duzue Bargagainen. Nafarroako Taekwondo Federazioak 2021. urtean Bargagain Nafarroako Klub onena izendatu zuen, lizentzia gehien izateagatik. Eta palmares ikaragarria duzue.

Bai, eta esan duzun bezala oso gazteak gara, baina potentziala dugula ikusten dugu. Guztiak biltzen gara eta bata besteari laguntzen eta hobetzen saiatzen gara. Eta askotan beste klub batzuekin entrenatzen saiatzen gara. Adibidez, duela gutxi Kataluniar joan ginen beste taekwondista batzuekin entrenatzera eta sinbiosi dinamika batean gure artean hobetzera.

2023 urtean, zein dira zure erronka nagusiak?

Niretako garrantzitsuenak da egingadako lana pistan erakustea. Egingadakoarekin ongi eta gustura sentitzea, hobetzen ari naizela jabetzea. Dominak politikak dira, zure bilakaera ikusteko ongi daude, baina niri ez zait gustatu inoiz zenbat domina ditudan esaten egotea. Elkarrizketa honetan esan beharra dut, baina egunerokotasunean ez dut gustuko. Izan ere, hori ez da gehien asetzen nauena. Kirolari gisa gehien betetzen nauena da progresioa dudala ikustea, gauzak ongi egiten ditudala konturatzea eta hobetzen ari naizela sentitzea. Bizitzen ditugun momentuak eta emozioak askoz ere baliagarriagoak eta garrantzitsuagoak dira metal puska bat baino. Dominak ongi daude, baina garrantzitsuenak da gure taekwondo ibilbidean bizitzen duguna.

Beunzak Espainiako Kros Txapelketarako txartela du

ATLETISMOA Tuteran jokatuak Nafarroako Kros Luzeko Txapelketan hirugarren sailkatu zen Beste Iruña klubeko korrikalaria, eta Espainiako Txapelketan Nafarroa ordezkatzeko txartela lortu zuen. Gainontzeko sakandarrak ere txukun aritu ziren

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Kros denboraldi bete-betean gaude. Larunbatean Tuterako Santa Quiteria zirkuituak Nafarroko Kros Luzeko Txapelketa hartu zuen, joan zen urtean Dantzalekun jokatu zena. Kategoria txikiko probetan Dantzaleku Sakana klubeko neska-mutikoak lehiatu ziren, eta baita proba nagusian ere.

Hotza eta lainoa izan ziren nagusi Tuteran. "Tuterara iritsi eta behe laino baxu-baxua eta oso temperatura freskoa zegoen; hotza. Arratsaldeko ordubiak arte ez zuen jaso" azaldu du emakumezkoen proba nagusian parte hartu zuen Izaskun Beunza Azazeta Beste Iruñako atleta olaztiarrak.



Izaskun Beunza, ezkerrean, Nafarroako Kros Luzeko Txapelketan, Tuteran. UTZITAKOIA

Beunzaren planteamendua

Emakumezkoen proba nagusian Santa Quiterian prestatutako zirkuituari bost itzuli eman behar izan zizkieten korrikalariak, 8.400 metro osatzeko. "Zirkuitu gogorra da, oso gorabeheratsua, maldan gora eta behera. Abiadura konstante bat hartzea ezinezkoa da, eta horrek, bereziki, gogortzen du proba" Beunzaren esanetan. "Banekien Alicia Carrera (Grupompleo Pamplona Atletico) egonda, berak jantziko zuela txapela, ezustekoren bat

gertatu ezean. Bestalde, Ainara Alcuaz (Hiru Herri) eta Vanesa Pacha (Hiru Herri) indartsu daude. Hortaz, nire burua podiumean egoteko aukera ikusten nuen, baina baita laugarren postuan sailkatzeko ere, hiruron artean nahiko maila beretsua dugulako". Horiek ziren Beunzaren aurreikuspenak.

Lehendabiziko bi itzulietan seikote batek hartu zuen aurrea, faborito nagusiak bertan zeudela. "Alicia Carrerak markatzen zuen erritmoa, baina denak oso paretsu geunden. Hirugarren

bueltan Carrerak erritmo aldaketa egin zuen eta ihes egin zuen. Vanesa Pacha eta ni jarraitzen saiatu ginen, eta hirugarren itzulia biak elkarrekin egin genuen. Laugarren itzulian Pacha atzean uztea lortu nuen eta bakarrik gelditu nintzen, bigarren postuan". Egindako ahaleginak ordaina izan zuen. "Esfortzu gehiegi egin nuen, eta bosgarren itzuliari ekin nionerako nahiko nekatuta sentitu nintzen. Ainara Alcuaz gogotsu zetorren atzetik (kar, kar...) eta helmugara iristeko 800 metro inguru falta

zirenean harrapatu ninduen eta ezin izan nuen haren erritmoa jarraitu. Hortik aurrera, helmugara arte ederki sufritu nuen. Beraz, hirugarren postuari eutsi izanagatik oso pozik nago" aitortu du Beste Iruñakoak.

Hurrena, Espainiako Txapelketa

Tuterakoa Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa zenez, emakumezkoetan sailkatutako lehendabiziko laurak Espainiako Kros Luzeko Txapelketan Nafarroa ordezkatzeko txartela lortu zuten. Gainontzeko bi ordezkariak Nafarroako Atletismo Federazioak aukeratuko ditu. "Espainiako Kros Luzeko Txapelketa ilbeltzaren 29an jokatu da Ortuellan, eta hori izango da hurrengo erronka. Bertan maila handia dago eta ahalik eta hobekien sailkatzea eta disfrutatzea, hori izango da nire helburua bertan" azaldu du Beunzak.

Dantzalekukoak, txukun

Gizonezkoek 9,3 kilometroko lasterketa osatu zuten Tuteran. Proba borrokatuan Hiru Herriko Beñat Atarratze Rota gailendu zen (29:12). Rotak aitortu zuenez, "hotzarengatik eta lainoarengatik hasieran egokitzea kostatu egin zait. Azkenean boskote bat geratu gara aurrean eta azken aurreko itzulian erasora jo dut". Rotak Ardoiko Ayrton Azcueri 11 segundo atera zizkion, eta Andoni Acebedo izan zen hirugarrena (29:36).

Sakandarrei dagokienez, Dantzaleku-Sakana klubeko korrikalariak lan ona egin zuten. Ivan Sobredo "Triki" izan zen lehena, helmugan hamaseigarren (32:07). Sergio Garcia de Eulate hamazazpigarren iritsi zen (32:16) eta Jabi Gasanz hogeita batgarren (32:51). Hiru Herriko Mikel Ber-

dud hogeitaseigarren postuan sartu zen (34:24).

Etxeberria laugarren Araitzen

Bi urte ondoren igandean 16. Araitz-Beteluko Krosa itzuli zen. 125 korrikalarik hartu zuten irteera, euria eta hotza nagusi zirela. Betelu, Arribe eta Atallu artean prestatutako zirkuituari bi itzuli eginda, 7,7 kilometro osatu zituzten. Javi Menta andoaindarra hasieratik lasterketa buruan jarri zen eta gutxika tartea ateratzen hasi zen, garai-pena lortu arte (25:06). 40 segundo atera zizkion Aitor Regillaga tolosarrari, eta hirugarren Uitziko Raul Amatriain izan zen (26:00). Laugarren postuan sailkatu zen Aritz Etxeberria altsasuarra (26:13). Emakumezkoetan Maria Ordoñezek dominatu zuen proba (29:09). Carlos Mañeru 51. iritsi zen (33:15), Aingeru Azazeta 78. (38:21), eta Olatz Azazeta 79. (38:21).

Sakandarrak Valentzian

Igandean 10k Valencia Ibercaja lasterketa famatu eta jendetsua jokatu zen Valentzian, 10 kilometroko proba ezaguna, munduko 30 herrialdeetatik bertaraturako 10.000 partaide inguru izan zituena. Weldon Kipkirui Langat keniatarra (26:55) eta Yalemzerf Yehualaw etiopiarra (29:19) izan ziren txapelaldun handiak. Hiru Herriko Asier Estarriaga etxarriarra 414. postuan sailkatu zen (33:29) eta Beste Iruñako Iraitz Senar lakuntzarra 599. (34:50).

"ESPAINIAKO TXAPELKETAN AHALIK ETA HOBE SAILKATU NAHI DUT; DISFRUTATU" IZASKUN BEUNZA

Zazpi mendi lasterketa Sakanan, bi egutegitan banatuta

MENDI LASTERKETAK Bost Nafarroako Mendi Federazioko egutegian jasoak daude eta bi Atletismo Federaziokoan

2023 denboraldian Sakanak zazpi mendi lasterketa hartuko ditu guztira, bi federazioren esku.

Nafarroako Txapelketak

Nafarroako Mendi Federazioak antolatutako Nafarroako Mendi

Lasterketen Zirkuituak 23 mendi lasterketa izango ditu aurtan, rankingean puntuatuko dutenak. Tartean daude ekainaren 11n jokatu den Lakuntza-Aralar mendi lasterketa; ekainaren 25eko Triku Traila, aldi berean Nafa-

rrako Kluben Arteko Txapelketa izango dena; irailaren 3an Arbizuko Ekokanpingean erabakiko den Tritoiena, Nafarroako Koparako puntuagarria izango dena; irailaren 17an jokatu den Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa izango dena; eta urriaren 1eko Etxarri Aranzako Mendira Joan Etorria.

Nafarroako Atletismo Federazioak, bestalde, 2023rako Navartrail Txapelketa aurkeztu berri du. Guztira bederatzi trail las-



Km Bertikalean, Beriainera bidean.

terketa ditu, tartean apirilaren 16an jokatu den II. Bargagaingo Igoera, aldi berean Nafarroako Trail Running Txapelketa izango dena. Dantzaleku Sakana klubak 2021ean antolatu zuen lehenengoz proba, eta aurtan bigarrenez egingo dute, Navartrailen barruan.

Bestalde, Sutegik antolatuta irailaren 30ean jokatu den Olatzagutia-Urba mendi lasterketa Nafarroako Atletismo Federazioren egutegian jaso da aurtan.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 20

ALTSASU Gazte agenda.

Gozamenez Escape room-a.

Arratsaldez, Intxostiapunta gazte gunean.**ALTSASU Hitzaldia.**Xabier Irujo Ametzaga historialariaren *Euskara desagerrarazteko politikak* hitzaldia, Nabarralde eta Altxa burua taldeak antolatuta.**19:30ean, Gure Etxea eraikinean.****OLAZTI Kontzertua.**

Zigor DZ eta Fer Zapo musikariek osatzen dute Onki Xin taldearen emanaldia.

23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 21

IRURTZUN Mus txapelketa.

Felix Urra Mariñelarena - Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketaren lehen fasearen kanporaketa. Izen ematea barran.

16:30etik aurrera, Pikuxarren.**ALTSASU Gazte agenda.**

Gozamenez Escape room-a.

Arratsaldez, Intxostiapuntan.

IGANDEA 22

ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.*Gabi. 8 urtetik 13 urtera* film dokumentalaren emanaldia, ZinUEMA euskarazko ikus-entzunezkoak sustatzeko egitasmoaren barruan.**18:30ean, kultur etxean.****IRURTZUN Film dokumentala.**Kepa Junkera *Berpiztu-Renacer* film dokumentalaren emanaldia.**19:00etan, kultur etxean.****ALTSASU Elkarretaratzea.***Euskal preso eta iheslariak* etxera.**20:00etan, plazan.**

ASTELEHENA 23

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 24

ALTSASU Solasaldia.Ion Arretxe idazlearen *Hiriak eta nobela beltza* solasaldia, Pamploña Negra nobela beltzaren inguruko jaialdiaren barruan.

ZINEMA

ALTSASUIORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN**El peor vecino del mundo gaurkotasunezko filmaren emanaldia**Ostirala 20 19:00
Igandea 22 19:30**Al descubierto gaurkotasunezko filmaren emanaldia**Osteguna 26 19:00
Ostirala 27 19:00IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN**Et zineforum filmaren emanaldia**

Igandea 22 19:00

El falsificador de pasaportes zineforum filmaren emanaldia

Osteguna 26 19:00

18:30ean, Iortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 25

ALTSASU Kontzentrazioa.

Sakanako Osasun Publikoaren aldeko plataformaren kontzentrazioa.

12:00etan, osasun etxearen aurrean.**ALTSASU Irakurketa kluba.****ALTSASU Adela Sánchez artistaren Oraina eta atzera** begirakoa erakusketa.**Otsailaren 1era. Iru Bide jatetxean.**

IORTIA KULTUR GUNEA

ALTSASU Malgaxe emakumearen indarra argazki erakusketa **Benito Pajares, Yeray Menéndez, Lobolopez, Scar Lafiniarivo, Jonathan Pisonero eta Rafa Cabalen** argazkiekin osatua.**Otsailaren 12ra arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.**

ZORION AGURRAK

**Pedro Miguel Quintana**
96 urteZorionak zure
familiarren partez!Birgit Vanderbeke idazlearen *Muskuiluak* afaltzeko liburuaz ariko dira euskarazko irakurketa klubeko kideak.**18:15ean, Iortia kultur guneko areto txikian.**

Nafarroako Gobernuak antolatuta.

18:00etan, udaletxean.

OSTIRALA 27

OLAZTI Kontzertuak.

Deserrite talde sakandarraren eta Guda Dantza taldearen disko berrien aurkezpen kontzertua.

23:00etatik aurrera, Maisuenea gaztetxean.

OSTEGUNA 26

IRURTZUN Hitzaldia.*Ezagutu energiaren merkaturak: Argindarra eta gasaren kontsumoa* etxetan hitzaldia.**Er^viti** aluminio PVCAkaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona
eta prezio ezin hobea

ESKELA



Jesusa Urizar Ostiza

Haizeak negar egiten du,
itsasoa mutu gelditzen da zu etortzean,
ai gaua zer dezu isiltasunean.

Altsasuko gaiteroak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 €
prezio hauek BEZA barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Maddi Lopez Goikoetxea**, ilbeltzaren 8an Iturmendin
- **Ekhi Yeregui Franco**, ilbeltzaren 14an Arbizun
- **Sua Oleaga Gonzalez**, ilbeltzaren 16an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Jesusa Urizar Ostiza**, ilbeltzaren 11n Altsasun
- **Mari Carmen Sanchez Ortega**, ilbeltzaren 11n Iturmendin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulego; Wifi, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Sakana Garapen Agentziak arduraduna kontratatu nahi du: Sakana Plan Estrategikoan aurreikusitako lanak egiteko, bere ardurapean duela industria teknikaria. Euskarazko C1 eta ingelesezko B1 eta Unibertsitate titulazioa Industria arloko ingeniariaren edo Enpresa Zientziaren. Horretaz aparte gidabaimena eta ibilgailua izatea ere ezinbestekoa da. Eskabideak urtarilaren 23ko 23:59a baino lehen aurkeztu behar dira SGAREN egoitzan (Arbizuko Utzaganen duen egoitzan edo info@sakanagaratzen.com e-postara bidaluz. Xehetasun gehiago www.sakanagaratzen.com web orrian.

HIGIEZINAK

ALOKAGAI

Etxe bat alokatzen da Sakana 683 162 018.

LEHIAKETA

Nafar Ateneo nazioarteko poesia sariaren V.edizioa martxan: Lanak aurkezteko epea urtarilaren 31n amaitzen da, edizio honetarako aurkeztutako poemarioen gaia "Sorioneku" hitza da (bere esanahi eta interpretazioaren zentzu zabalean). Informazio gehiago euskera@ateneonavarro.es helbidean edo 948 275 302 telefonoan

OHARRAK

Txerri hilketa eta bazkaria Altsasuko La Encina: Hilaren 28an ohiko txerri hiltzea eginen dute Altsasuko La Encina elkartean. Hura bukatzeko herri bazkaria izanen da. 687 901 205 edo 687 607 303 telefonoetara Whatsapp mezua eman daiteke izena, izena eta bazkaltzera joanen diren pertsonen kopurua adie-

raziz. Plaza mugatuak. Izena ematea hilaren 26ra arte zabalik dago.

Mendizaleak federatuko deia: Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Erkunden kaleko 8.zenbakian duen egoitzan egin daiteke tramitea, horretarako urtarileko astegunetan 18:00etatik 20:00etara egongo dira harrera lanak egiten.

Crowdfunding Kanpaina Josefina Arregui Klinikaren Lagunen Elkartek diru bilketa hasi du Eguneko Zentroa berritzeko eta handitzeko, helburua 75.000 euro lortzea da. Diru ekarpenak www.josefinaarregui.com web orriaren bidez egin daitezke, txartel, Bizum edo kontu zenbaki baten bidez ekarpen eginez edo Laboral Kutxan eta La Caixa banketxeetan ireki diren kontuetan diru sartuz. Kanpainak 2023ko otsailaren 15era arte iraungo du. Informazio gehiago klinikaren web orrian edo 948 563 850 telefonora deituz.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Etxarri Aranazko Gaztebolea zabalik: maiatzaren 28ra arte egonen da zabalik asteburuetan; larunbatetan 17:00etatik 21:00etara eta igandetan 17:00etatik 20:30era. Gaztebolean LHko 6.maila eta DBH 4.maila bitarteko gazteei zuzenduta dago eta oraindik izena emateko aukera dago. Matrikula ordaindu behar da. Informazio gehiago nahi duenak udaletxera jo dezake edo 606 239 008 telefonora hots egin dezake edota kultura@etxarriaranaz.eus helbide elektronikora idatz dezake.

Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia: Lakuntzako Zabalarte Elkartea Aralarko Guardetxe agertzen diren argazkiak biltzeko deialdia, izena eta bazkaltzera bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren

egoera eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburu. Halako irudiren bat duenak udaletxera bulego ordutegian joan daitezke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

Adur rol jolasa euskaraz eta doakoa: Telegram bidez jolasten den rol joko bat jarri du martxan Eneko Azedok. "Adur - Azken eronka" Euskal Erdi Aro mitologikoa girotuta dago, Iruñetik hasi eta Euskal Herri guzitik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak biziz. Telegram bidez esteka honetan sar zaitzake: <https://t.me/+ANOUJSCts0M210>.

Arropa bilketa: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakigoko udaletxearen arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hila-beteko lehen azoka egunean, asteartean, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarri Laguntza Elkartek duen egoitzara eramango dugu, bilketaren biharamunean. Itxipuru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

Lakuntzako jendeari Gaztebolea: Gaztebolea koak lakuntzarrei jakinarazi dienez, etxean erabiltzen ez dituzten eta gaztebolean erabiltzeko objektuak hara eramantzeko, mahai jolasak, eskulanetarako materiala, etab. Gaztebolea Uriz kalean dago eta larunbatetan eta igandetan 16:30tik 20:00etara egoten da zabalik, orduan eraman daitezke gauzak.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📱 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Joxe Aldasoro Jauregi artxiboko argazki batean.

Torturaren errealitatea azaleratzeko narrazioa

Joxe Aldasoro Juaregik Iruñeko Egile berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketaren narrazio saria irabazi du. Torturaren gaia azalatu du etxarriarrak, eta epaimahaiak progatonistaren "itolarría" oso ongi islatu duela nabarmendu du

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Urte hasieran aurkeztu zituen Iruñeko Udalak urtero antolatzen duen Egile berrientzako Euskarazko Literatur Lehiaketaren 32. edizioaren irabazleak. Hemezortzi lan aurkeztu dira, bederatzi narrazio laburrean eta bederatzi poesian, eta narrazio sailean Joxe Aldasoro Jauregi idazle etxarriarrak irabazi du lehen saria *Biyer egueldi* narrazioarekin. Tortura jasan duen pertsona baten bizitza kontatzen du lanak.

Aurten Iruñeko udalak ez du sari banaketa ekitaldirik antolatatu, "ez digute zergatik esan, baina agian beste urteetan egin dutena ez zaie asko gustatu". Aldasororekin batera, Iker Tubiak eta Ainara Tirapuk narrazio sailean irabazi dute, eta Ventura Ruiz, Rakel Pardo eta Malen Alzua idazleek poesian. Hiru aipamen berezi eman dituzte: Itziar Aguirre, Iñigo Sartrategi eta Odei Ruiz. Lan saritu guztiekin liburua argitaratu

tuko dute eta apirilean aurkeztea aurreikusten dute. Hirugarren aldia da Aldasoro aurkezten dela eta aurreko bietan aipamen berezia eman zioten.

Lau maila

Atxilotzean inkomunikaziotik pasa den eta torturak jaso dituen pertsona baten bizitza kontatzen du. "Zer puntutaraino gelditzen den bere bizimodua eta ingurukoena. Erabat aldaturik, pista gehiago ez emateagatik". Torturaren inguruko narrazio bat dela azaldu du Aldasorok, "torturatuen ondorioak zein izan daitezkeen". Egile berrientzako Euskarazko literatur lehiaketako epaimahaiak azaldu dutenez,

"IDAZLANA NOLA ANTOLATU KOSTATU ZITZAIDAN; EZ NUEN LORTZEN NAHI NUENA ISLATZEA"

Aldasororen lanak "oso ongi islatu du protagonistak bizi dituen itolarria, egonezina eta larrimika, baita horren inguruko arteko ezin esanak eta ezin eutsiak ere".


Euskal Herritar asko bezala Aldasorok azaldu du torturaren aspalditik duela harremana. "2010ean gaur egun ministroa den Marlaska epaile zenean agindatutako operazioan atxilotu ninduten beste zortzi lagunekin batera eta inkomunikazioa pasatu nuen". Torturatuek lau mailako sufrimendua jasaten dutela esan du: "Inork ez digu sinisten, aldi gutxitan lortzen da zerbait demostratzea, torturatuak jartzen zaien gutxienekoak dira eta gero barkatu egiten zaizkie eta, batzuetan, kondekorazioekin saritzen zaie ere". "Zerbait" kontatu beharra zeukan.

Biyer egueldi narrazioa idazteko unibertitate garaian ezagututako mutiko batean oinarritu zen Aldasoro. "Inkomunikazioa-

ren ondoren txikiturik gelditu zen, beste pertsona bat zen. Ez zen kapaza izan ikasten segitzeko ez lanean ez ezertan. Aurretik ezagutzen nuen eta ondoren elkartu nintzenean berarekin ezin zuen begietara begiratu eta ez zuen elkarrizketa bat izateko ahalmenik". Egoera hori buruan zuen eta hori "literatura puntu batekin" islatzea zen helburua, "baina sinesgarria izatea". Aitortu duenez, idaztea kostatu zitzaion. "Idazlana nola antolatu kostatu zitzaidan. Hainbat aldiz

hasi nintzen, ez nuen lortzen nahi nuena islatzea".

Narrazioaren helburua "komunikatiboa, soziala edo politikoa" zela esan du Aldasorok, "beti izkutatutakoa izan den errealitate baten testigantza edo salaketa" egitea. Zauriak ixten lagundu dion galdetuta, "ez da hortik joaten. Nire zauriak ez dakit erabat itxi ditudan, baina bere garaian psikologo batekin egon nintzen eta sarekadakoekin batera beste ariketa batzuk egin genituen".



BAZTERRETIK
IRATI PELLEJERO
MARIN

Coco Chanel

Aurrekoan egin genuen moduan, aste honetan ere diseinatzaile famatuari buruz hitz eginen dugu. Gabrielle Bonheur Chanel-i buruz, alegia, Coco Chanel izenarekin ezagunagoa. Moda diseinatzaile aurrerakoa izan zen, iraultzailea eta nortasun bereziko; emakume honek goitik behera aldatu zuen modaren mundua.

Coco Chanel Frantziar jaio zen 1883. urtean, familia umil batean; ama etxeko lanetan aritzen zen eta aita saltzaile ibiltaria zen. 1985ean tuberkulosiak ama gabe utzi zituen bera eta bere anai-arrebak eta aitak ez zuen ezer jakin nahi izan. Bera eta bere lau anai-arrebak umezurtegiara bidali zituzten beren izebek. Haurtzaro gogorra eta behartsua izan zuten. Hori dela eta, bakardadeak markatu zuen Cocoren bizitza.

Lehen Mundu Gerran nabarmendu zen Belle Époque-aren dotorezia oparo eta ez oso praktikoarekin haustura bat eragin zuen, arropa informal, sinple eta erosoaren lerro bat sortuz. Poltsak, lurrinak, bitxiak eta kapelak ere diseinatu zituen. Bere Chanel N°5 lurrina mundu osoan ezaguna den produktu ikonikoa da.

1914ko ekainean, Lehen Mundu Gerra piztean, Coco konturatu zen arropak askoz ere funtzionalagoa izan behar zuela. Lehenik eta behin, kortsea kentzea erabaki zuen, emakumeei mugimendu-askatasun handiagoa emateko.

Bi urte geroago puntua bere bildumetan sartzen hasi zen; goi mailako jostuntzarako inork erabili ez zuen ehuna zen. Puntuz egindako jertseak atera zituen bere bilduman, gizonezkoentzako zirudien jantzia emakumezkoentzat izan zen lehen aldiz.

Bere bizitza profesionala anbizio eta bizitasun sendoagatik ezaguna izan zen. 1910eko hamarkadan, arrakasta lortu zuen enpresaburu gisa, eta horrekin batera arrakasta soziala ere. Bere lehiakortasun eta nortasun oportunistak erabaki eztabaidagarriak hartzea eraman zuten, bere izena kaltetu zutenak, bereziki Gestapo-rekin izandako lankidetzarekin.

20ko hamarkadan Frantziako modaren dama handi bihurtu zen eta ondoren, haren eragina ia esparru guztietan hedatu zen: ile motzetik lurrinetaraino, zapatatetik eta osagarrietatik pasatuz. Zentzu batean bera izan zen bere sinaduraren eredu nagusia: argala, bular gutxikoa eta ile motzekoa.

Bigarren Mundu Gerra hastean konturatu zen garaiak aldatu zirela eta arropak funtzionalagoa izan behar zuela, beraz, arropa zabalagoa eta erosoagoa erabili eta diseinatu zuen. Chanelen irudia milioika emakumek miretsi eta imitatu zuten, emakume moderno, aktibo eta askatasunaren sinbolo bihurtu zen.

Bere berrikuntzak are urrunago joan ziren; gonon luzera laburtzea eta emakumezkoen orkatila erakustera ausartu ez ezik, bere burua eguzkitan jartzeko ausardia izan zuen, garai hartan beltzarana izatea sinbolo izan arren.



Xabier Irujo Ametzaga historialaria Altsasun egonen da gaur. UTZITAKOA

"Genozidioa da herri baten identitatea desagerraraztea"

XABIER IRUJO AMETZAGA HISTORIALARIA

Genozidioan aditua, besteak beste, euskara desagerrarazteko politiken inguruan hitzaldia emanen du gaur, Altsasuko Gure Etxea eraikinean

E. C. M. eta E. R. B. ALTSASU

Xabier Irujo Ametzaga historialaria Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikerguneko zuzendaria da eta genozidio ikasketetako katedraduna da, besteak beste. Gaiaren inguruan hainbat liburu idatzi ditu, tartean, *Genocidio en Euskal Herria 1936-1845*. Arbasoak sakandarrak zituen eta haiek euskara ikasteagatik pairatutako zigorren inguruan, genozidioaren inguruan eta, horien artean, euskara desagerrarazteko politiken inguruan solasaldia eginen du

gaur, ilbeltzak 20, ostirala, 19:30ean, Gure Etxea eraikinean. Nabarraldiek eta Altxa Burua Sakanako Euskaltzaleen Sareak antolatu dute hitzaldia.

Nor zen zure herenaitona Eusebio Olio Miranda?

"AZKEN BERREHUN URTETAN PAIRATU DUGU EUSKAL HERRIAN GENOZIDIOA"

Altsasun jaioa zen, 1838an, lehenengo karlistadaren amaieran. Estatu espainolean monarkia instauratu zen, hemen Euskal Herrian ere, eta garai horretan eskola sistema elebakarra ezarri zen. Altsasun bezala beste herri eta bailara guztietan ere. Bere ziki hiri nagusietan ezarri zen gaztelaniazko sistema hori. Eusebiok gaztelaniaz ez zekienez burdinazko eraztuna jarri zioten, eta berari bezala hainbat haurrei Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanto ere. Oso arrunta da

gaur egun ere mundua zehar. Boisen, Idahon, bizi naiz eta Ghanako neska bat elkarrizketatuko dut; orain dela gutxi Estatu Batuetara iritsi berria zela lepoko antzeko bat jarri zioten eskolan bere hizkuntza hitz egin ez zezan. Ez da praktika bat Euskal Herrian bakarrik aplikatuzena, kasu honetan, euskara desagerrarazteko; munduko puntu guztietan ematen da.

Ondorioak ondorengoetara iritsi dira. Bai. Genozidio kanpaina batek eragin psikologikoak ditu, bai gizarte orokorrarengan bai pertsonarengan; orain hasi da pixka bat ikertzen. Horrelako jazoerak izugarriko eraginak ditu pertsonarengan. Lehenengo, erantzun soziala da: zenbat jendeak hitz egiten zuen euskara Altsasun 1838an? Zenbat jendeak hitz egiten zuen gaztelania lehenengo hizkuntza gisa Altsasun orain dela berrehun urte? Eta zein da gaur egungo egoera? Hori sistemahauen emaitza da. Hizkuntzaren egoeraren aldaketa. Pertsonarengan izugarriko inpaktu psikologikoa du eraztunarenak. Solasaldian sakonki azalduko dut, baina zigor psikologiko bat da. Horregatik dakigu familian, berak pasa zion esperientzia hura seme-alabei eta lau gizalditan etxean izan dugu horren oroimena. Oso larria izan zelako haur batendako horrelako zigorra jasotzea zekienez hizkuntza bakarrean egiteagatik. Gaur egun, ondorio larriak natiboengan ikusten ditugu, adibidez, Estatu Batuetan, Kanadan edo Australian. Genozidio kanpaina larriak bizi izan dituzte eta gaur egun alkoholizatuta daude, biolentzia izugarrikoarekin bizi dira, bortxaketak eta beste arazo sozial handiak dituzte. Hori guztia genozidio batetik dator.

Zer da genozidio bat? Euskal Herriak genozidioa pairatu zuen?

Orokorrean pentsatzen dugu genozidioa dela jende asko hiltzea. Baina ez da hori. Definizioz herri baten identitate kolektiboa desagerraraztea da. Rafael Lemkinek genozidio hitza sortu zuen eta berak esaten du: "Genozidioek ez dute zertan nazio baten berehalako suntsiketa esan nahi, hau

"ERAZTUNAREN ZIGORRAK PERTSONARENGAN IZUGARRIZKO INPAKTU PSIKOLOGIKOA DU"

da, pertsonak hiltzea. Genozidio baten helburua da talde nazional hauek talde gisa desagerraraztea bizitzaren oinarriak suntsitzen". Besteak beste, ekintza desberdinekin koordinatutako plan bat bultzatu eta nazio horren hizkuntza, gizarte erakundeak, kultura, sentimendu nazionalak eta abar desagertuz talde nazionalaren existentzia suntsitzea. Hortaz, oso garbi da Euskal Herrian pairatu dugula azken berrehun urte hauetan. 1936tik 1945ra kapitulu konkretu bat izan zen, genozidioa fisikoaren piko bat bizi izan genuen, jende gehiago hil zen momentu horretan. Baina genozidioa herri honetan frantses iraultzarekin hasi zela esan dezakegu, non beste nazio baten hizkuntza eta ohiturak ezarri ziren Euskal Herrian.

Nola egiten da?

Lehenengo pausoa identitatea desagerraraztea da eta hori lortzeko herri horren ohitura sozialak eta kulturalak suntsitu behar dira. Lehenengo praktika genozidio fisikoa da, jendea hil edo desagerraraztea; jendea espetxeratu edo erbesteratu. 1936tik aurrera 150.000 euskal herritar erbesteratu ziren. 7.000 inguru hil zirela kalkulatu da. Genozidioaren piko bat izan zen. Aurreko gerretan ere erbesteratu asko izan ziren. Herri bat garbitzeko, kaketxen artean, estrategia bat da. Genozidio politikoa, soziala eta kulturala ez dira mota desberdinak, genozidio kanpaina baten estrategiak dira, hau da, batera gertatzen dira.

Horiek frogatzeko?

Dokumentazioarekin. Genozidio kanpaina bat ez da bi urtetan gauzatzen; oso konplexuak eta luzeak izaten dira. Prozesu hauek estatuek eta gobernuak sustatukoak dira eta lehenengo ebidentzia legedian dugu. Jendetza jakin bati aplikatu diren legeak daude, adibidez, euskaldunei egokitutako legeak. Normalean salbuespen legeak eta neurriak izaten dira eta hizkuntza batetik idatzita. Hortik hasita dokumentazio mota desberdinak daude. Badakigu zenbat erbesteratu izan ziren Euskal Herrian, zein itsasontzietan joan ziren, nondik atera ziren eta nora joan ziren. Oso lege genozida tipikoa *Ley de responsabilidades políticas* delakoa da. Lege horren ondorioak epaitegietan ikusten ditugu: nor epaitu zuten, zergatik eta abar. Ebidentzia asko daude.

Legendazko komikia

Aralarko santutegiak Goñiko Teodosioren istorioaren liburu ilustratua eta margotzeko liburuxka publikatu ditu. Alfonso Gartzandia Goñi etxarriarrak egin ditu marrazkiak eta Jose Antonio Escudero arduratu da maketazio lanaz. Xedea istorioa zabaltzea da

Erkuden Ruiz Barroso UHARTE ARAKIL Etxean ikasi zuen Alfonso Gartzandia Goñi etxarriarrak Goñiko Teodosioren kondaira. "Nire aitak, gauetan ohatzera joaten ginenean kontatzen zizkigun istorioak eta, batez ere, Teodosioren. Guretzat faboritua zen". Orain, Gartzandia Aralarko santutegiaren legenda kontatzen duen komiki baterako marrazkiak egin ditu. Maketatzeke lanetan Jose Antonio Escudero-ren laguntza izan du. Margotzeko liburuxka egin dute ere eta biak, komikia eta margotzeko liburuxka, Aralarko santutegian, Zamartzeko monastegian eta Iruñeko Katedralaren ondoan dagoen elizbarrutiaren dendan eros daitezke sei eta lau eurotan, hurrenez hurren. Teodosioren Legenda komikiarekin lortutako irabaziak Aralarko santutegian egiten ari diren denda, harrera eta komunak ordaintzeko bideratuko dira.

Alfonso Gartzandia Baztango apeza da eta Mikel Gartzandia, bere anaia, San Migeleko santutegian apeza da ere. "Beti egoten gara San Migeleko eta Aralarko gauzak komentatzen eta ni beti marrazkiak egiten ibiltzen naiz". San Migeleko legenda jende "pila batek" ez duenez ezagutzen eta "gehien bat" haurrei gerturatzeko komikia egitea erabaki zuten. "Marrazki batzuk egin nituen, folio batean jarrita, maketatu gabe eta gero marrazki horiek formatu eder batean jarri ditugu eta haurrak margotzeko beste liburu bat ere egin dugu".

"Betidanik" marraztu izan du Gartzandia. "San Pablo, Itun berriko apostoluak... eta, orain, Teodosioren istorioa". Elizbarrutiak hilabetero publikatzen duen aldizkarian ere parte har-

tzen duela esan du. "Nik sortutako marrazkiak dira, modelo ez nuen. Batzuetan zerbaiti buruz badituzu beste marrazki batzuk kontuan, baina kasu honetan imajinazioa izan da". Haur txikiak ez aspertzeko barraskilo bat sartu du marrazkietan zehar, Teodosioren ondoan doana eta laguntzen eta gomen-dioak ematen dizkiona. Komikiak hamasei orri ditu eta kondaira euskaraz eta gaztelaniaz kontatuta dago.

Teodosio Goñikoa

Sakandar askorendako Goñiko Teodosioren eta Aralarko San Migelen istorioa ezaguna da. Kondaira eta historiaren artean dagoela esan du Gartzandia. "Badirudi Teodosio pertsonaia historikoa izan zela, eta historia eta legenda elkartzen dira". Laburbilduz eta komikian kontatzen dena zera da; Teodosio Goñin bizi zen gizon bat zen eta "musulmanen edo bisigodoen kontrako" gerra batera joan zen. Gerra amaitzean, herrira bueltatzean, bidean, "kondairak dio" deabrua mozturirik agertu zitzaioela eta "garai hartako *fake news*" bat esan zion: bere emazteak gizon batekin engainatu zuela. Teodosio Goñira, herrira, korrika itzultzen da eta ohean bi pertsona aurkitzen ditu; eta hiltzen ditu. Etxetik ateratzean emaztearekin topo egiten du, "eta nola da posible? Nor zegoen ohean? Emazteak bere gurasoak

GOÑIKO TEODOSIOREN KONDaira EZAGUTARAZTEKO KOMIKIA KALERATU DUTE

zeudela erantzuten dio, adinduak zirenez ohe hoberena utzi ziela".

Teodosiok "pekatu oso handia" egin zuenez barkamen handia behar zuen eta Erromara peregrinazioa egin zuen Aita Sainduaren barkamena eskatzera. Aita Sainduak barkamena ematen dio, penitentzia batekin: gerrian kateak eraman beharko zituen, arrastaka, "eta kate horiek hautsi arte zure penitentzia ez da bukatuko". Etxera bueltan zihoala Aralarren koba batean bizi zen "dragoi edo herensuge" batekin topo egin zuen eta laguntza behar zuenez "zeruko aingeruetatik San Migel goiangerua dela gogoratu zen eta SOS edo SMS bat bidali zion". San Migel joan zen, dragoia hil zuen eta kateak hautsi zizkion. "Orduan, Teodosiok Aralarko goiko mendian elizatxo bat egin zion". San Migelen irudian aingerua Jesusen gurutzarekin agertzen dela azaldu du Gartzandia, "gure arma sekretua Jesusen maitasuna dela esanez". Orduz geroztik dago Aralarren gainean santutegia.

Haurrendako

"Gaur egun ikusten ditugu haurrak telefono mugikorrarekin astakeria mordo bat ikusten. Horiekin alderatuz, istorio hau *light* da". Kondairaren atzean, gainera, ikasketa bat dago: "Legendak irakasten digu gezurrek kalte egiten dutela eta beldurra dugunean gure ondoan babes-tuko gaituen norbait behar dugula, lagunak, familia... Laguntza eskatzeko norbait behar dugula". Gartzandia azaldu duenez, "badago idazle ingeles bat, esan zuena, dragoien legendak ez direla dragoiak existitzen diren edo ez kontatzeko; dragoien kontra irabazi ahal dugula esa-



Alfonso Gartzandia Goñi 'Teodosioren Kondaira' liburuekin. UTZITAKOA

ten digute. Gure bizitzan agertzen diren dragoiak, arazoak, oztopoak eta abar irabaztea posible dela". Legendaren atzetik "beti zer dagoen" ikusi belar dela gaineratu du apezak.

Haurrendako ikasketak ere baditu Teodosioren legendak: "Zerbait gaizki egiten denean barkamena eskatzea posible dela". Legenda ez denean ezagutzen, "pentsa, esaten diozu haurrari gizonak emaztea hil behar zue-

la baina gurasoak hiltzen dituela". Astakeriak ere egiten direla erakusten du. "Txikitatik entzuten genuen. Batzuetan uste dugu haur txikiak direla, baina haur txikiek ere pentsatzen dute. Ustez baino pentsamendu gehiago dute. Haurrak bezala tratatzen ditugu, baina pertsonak dira, eta pertsonak bezala tratatu behar ditugu". Bizia bizitzen erakutsi behar zaiela gaineratu du Gartzandia.

"Etxarri Altzariak gure bizimodua izan da"

Urte luzez altzariak eta etxerako "denetariko" produktuak saldu dituzte Joxan Artiedak eta Ana Ezkurdiak, Ricardo Zubiriarekin batera, Etxarri Altzariak familia dendan. Laster itxiko ditu ateak, eta likidazioan daude. Herriko negozioetan erosteko deia egin dute

Eneida C.M. / Erkuden R.B. ETXARRI A.

1 Noiz ireki zituen ateak Etxarri Altzariak/Comercial Etxarrik?

Ez dakigu data zehatza, baina gutxi gorabehera orain dela 60 edo 65 urte ireki zuten.

2 Nor zen orduko nagusia?

Orduan Justo Artiedaren izenean zegoen, eta negozioa handitu zenean sozietate anonimoa izatera pasa zen 1987an; Comercial Etxarri S.A. izatera pasa zen. Gabina Barandalla bere emaztea ere, Uhartre Arakilen, Etxarri Aranatzan eta Altsasun dendak jarri zituztenean, arratsaldeetan joaten zen.

3 Altzariak bertan egiten zituzten?

Hasieran, bai. Nire aita zurgina zen eta zurgina izatean bazuk egiten zituen. Komertzial bezala jarri zenean kanpotik erosten genuen eta dendan saltzen genuen. Hasieran ez ziren altzariak bakarrik saltzen, denetarik saltzen genuen: telebistak, antenak... Garai hartan telebista seinalea oso gaizki hartzen zen. Uhartre Arakilen ere butano bonbonak eta abar saltzen genituen. Umea nintzenez Eguberrietan jostailuak saltzen genituen ere.

4 Bezeroak nongoak izaten ziren?

Gehienak Sakanakoak izaten ziren. Gipuzkoatik ere etortzen ziren, Goierriatik asko, Donostiatik; baita Arabatik ere. Bizkaitik baten bat ere etorri da, baina gutxiago.

5 Zer nolako altzariak izaten ziren?

Lehen, hasierako salmentetan, normalean egurrezkoak izaten ziren. Egurrari balore handia ematen zitzaion. Altzariak egungoekin alderatuta desberdinak ziren. Egurra asko lantzen zen eta baserri estiloa izaten zuten. Altzari sendoak ziren eta egurrak haritza, gerezondo, gaztainondo



Joxan Artieda, Ana Ezkurdia eta Ricardo Zubiria.

eta abarrekoak ziren. Ikuspegia zen bizitza osorako izatea. Tole-dotik edo Talavera de la Reinatik ekartzen genituen. Gero bazegoen beste bat valentziar estiloa deitzen zena altzari finagoa zena eta txapekin egiten zena, baina oso txapa bereziak ziren sustraiekin egiten zirelako. Lan finak ziren. Altzari modernoagoak ere saltzen ziren, garai horretan taula aglomeratuekin eginak baina beti egurrarekin landutakoak, ez plastikozkoak gaur egun ikusten ditugunak. Estiloa ematen zion altzariari.

6 Noiztik zaudete familiako enpresan?

Joxanek beti ezagutu du familia barruan eta bizi guztia daramala esan daiteke. Garapen handia ikusi du. Ana eraikin berriarekin hasi zen, 1987. urtean gutxi gorabehera.

7 Nola aldatu da altzarigintza azken urte hauetan?

Askok aldatu da. Gehien aldatu dena itxura eta materiala da. Orain aglomeratuan egiten da. Laminak melamina itsatsiarekin egiten dira eta egurraren imitazioa lortzen da. Horrek itxura aldetik pila bat aldatzea ekarri du. Kolore pila bat daude eta nahasten dira. Produktzioetan ere aldaketa handia egon da, fabriketan aukera daukate makina berriekin diseinu aldetik egiturak aldatzeko. Jendeak ez du nahi altzariak betirako izatea, aldatu nahi du. Altzariak jartzeko beste modu bat ekarri du ere, espazioak aprobetxatzeko eta horiek saltzeko beste modu espezializatuagoa.

8 Zer saldu duzue azken urteetan?

Denetarik saldu dugu. Atsedena beti landu izan dugu: koltxoak, sofak, logelak, gazteendako logelak... Baita sukaldeko altzariak eta elektrogailuak ere. Altzariak neurrira egiten genituen,

nahizenuenean gukegiten genuen. Azken urteetan altzari txuria asko saldu da.

9 Nolako balorazioa egiten duzue zuen ibilbideaz?

Gure bizimodua izan da; ordu asko, esfortzu handia eta lan asko negozioa aurrera eramateko. Baina hamabost urtez, krisi ekonomikotik orain arte, urtetik urtera lan bizimodu hau gero eta zailagoa dela ikusi dugu. Azkenean, gauzak asko zaildu dira eta erabaki bat hartu beharra zegoen eta ixtea erabaki genuen.

10 Likidazioa duzue orain hila-bete bukaera arte, zer gertatzen da salgai?

Liquidazioa hilabete honetan, urtarrilean, eta beharbada da-

torren hilabetean ere hemendik ibiliko gara. Altzariak saltzea nahiko genuke eta salmenta gehiago izan arte hemen egongo gara. Likidazioan oraindik egongelako altzariak, logelak, haurren logelak, sofa-butakak eta osagarri asko daude. Koltxoak gehienak saldu ditut baina baten bat gelditzen da. Facebook-ean gertatzen diren modeloen argazkiak jartzen ditugu.

11 Sakanako biztanleei zer esan nahi zeniekete?

Lehenik eta behin guregan konfiantza izan dutenei eskerrak ematea. Bestetik, garrantzitsua dela gertuko zerbitzuak eta negozioak mantentzea Sakanan bizitzeko, lan egiteko eta erosteko. Denon artean egin beharko dugu.

MATRIKULAZIO KANPAINA 2023-2024

* Kanpainerako behar dituzun euskarri guztiak prestatuko dizkizugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus